

**ANAI INNOCENTIUS ELIZANBURUREN  
MENDEURRENA**

*Heleta 1995-05-26*



## ANAI INNOCENTIUS ELIZANBURUREN MENDEURRENA

*Heletako herriko etxea, 1995-05-26*

*Andrée Arbelbide,  
Heletako auzapez anderea*

Ongi etorri eta eskerrik beroenak daukitzuet gaur. Heletako herri huntarat etorririk zuen lan bilkurarentzat. Ohore bat da guretzat zuen errezebitzea.

Zuetarik zonbeitek ezagutzen duzue etxe hau, baitu bere berezitasuna. Sartzeko ateko harrian latinez idatzia den bezala duela 2 mendeko bat dioin zilo bat omen zen eta Jacques Garra de Sallagoiti famatuak garbitu omen zuen.

Jacques Garra de Sallagoiti, hori zen heletar apez jakintsu eta izkiriant bat. Hor ikusten ahalko duzue, erosteko xantza ukan dugun harek idatzi liburu bat.

Guk dakigula ez zen Euzkaltzalea, baina behar bada zuetarik norbaitek harrapatuko duzue haren euskarazko idazki zerbait. Orduan erraiten ahalko ginuke euskaltzalea ere zela.

Eskerrak ere Elizanburu heletarrari interesatu baitzirezte.

Ez ba zinate argitarazi haren liburua gehienek ez ginuen jakinen izan zenez ere, Elizanbururik Heletan eta bultzagarri izaiten da gure itzuliko jendeak famatuak izan direla jakitea.

Bururatzeko dei bat egiten dautzuet. Istantean bozkak ditugu herrietan eta ari gira jenderi kendu emaiten egin dugun lanaz, geroari buruz zer diren gure xedeak, hori euskaraz ere.

Bainan hortarako hitzak eskas ditugu: *Administration, extraits des actes administratifs, budget* eta holako hitzak euskaraz nola erran ez dakigu, ez baitugu etxeko euskara hura baizik egundaino ikasi.

Zuen gainean kondatzen dugu jaun andere euskaltzainak, agerrarazteko administratione hizkuntza hiztegi zerbait.

Egizue lan beraz eta aintzinetik milesker.



## ANAI I. ELIZANBURU-REN MENDEMUGAN

*Heleta, 1995-05-26*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Marie-André Arbelbide, Heletako andré auzapeza,  
Euskaltzalnkideak,  
Jaun-andereak. Arratsalde on.

Eskerrak zor dizkizut, anderea, esker beroak eta nasaiak: goiz honetan utzi diguzu Herriko etxeko gela nagusia gure hileroko bilkurarentzat, lau orenez ari izan garelarik lanean kartsuki.

Arratsalde honetan, gela ber-berean bilduak gara heletar baten ohoretan, gizon horretaz mintzatuko direlarik euskaltzain urgazle den beste heletar bat, hain zuzen zure koinata, Xipri Arbelbide eta La Salletar bat, Martin Lasa anaia. Haiei esker, hobeki jakinen dugu zer izan diren euskal munduan Heleta eta heletarrak, azken hauen artean Michel Elissamburu.

Eskerrak zor dizkizut egin diguzun ongi etorriarengatik. Heletar famatu baten etxean gaude, Jacques Garra de Sallagoiti-ren sort-etxean, herriak erosia eta herriko etxe egina. Baina Heletan garenez gero, ez dezaket ahantz ongi ezagutu dudan heletar idazle bat, filosofoa, *Herria* astekarian idazten zuena, bi artikulu astero, bat frantsesez, bertzea euskaraz eskaintzen zituela, zinez heletar seme euskaltzale zintzoa.

Zure mintzaldian, anderea, aipatu duzu euskararen baliatzea Herriko etxean. Deitoratu duzu hitzen eskasa. Egia da biziki guti baliatzen direla administrazio hitzak euskaraz Iparralde honetan. Halere, gogoaritzen dizut Hegoaldean hizkuntza ofiziala dela euskara eta Lege Biltzarreko erabakiak ofizial diren bi hizkuntzetan (euskara eta espainiera) idatziak eta agertuak direla. Beraz, gai da euskara administrazioko gaien aipatzeko eta gero eta gehiago beharrezkoak dira harremanak Hegoaldeko eta Iparraldeko herrien artean, mugari tiro eginez, hain zuzen Europaren batasunerako bidea jadanik urratua delarik.

Goazen orain egungo gaira. Duela orain ehun urte hil zen Michel Elissamburu (Anai Innocentius) 1895-eko urtarrilaren 4-an. Bi Elissamburu baditugu euskal literaturan. Duela lau urte, Saran aipatu eta goraiatu dugu Jean-Baptiste Elissamburu, idazle eta olerkari famatua, fama haundiko gizona, liberala, Elissamburu gorria deit genezakeena. Aurten, aldiz, ohoratzen dugu Anai Inno-

centius, haren kusia, lau libururen idazlea, haien artean *Lehenagoko euskaldunak zer ziren* (1889) eta Framazonen kontrako liburua, bi aldiz argitaratua, bigarren aldian Frantziako hirur Errepubliken historia apiatuz (1890). Sartua zen, beraz, politikan Michel Elissamburu, baina ez haren kusiaren alderdi be-rean. Erran dezaket baditugula bi Elissamburu: Elissamburu gorria, saratarra eta Elissamburu zuria, heletarra, orduko hiztegiaren baliatzeko.

Egia da, duela ehun urte, bazterrak nahasiak zirela Frantzian eta Iparraldean. Zurigorrien arteko guduka latza zen. Eskola laikoen legea onartarazi zuen Jules Ferry-k: apezgaiek soldadogoia egin behar zuten; gai horiek agertzen ziren lege-biltzarreko bozetan, Etcheverry eta Berdoly-ren arteko gudukan, lehena Louis Etcheverry, *Eskualdunaren* jabe zelarik eta bertzea Berdoly, gorri edo hobeki erran arrosa kolorekoa, *l'Avenir* kasetak lagundua.

Orduko *Eskualduna* irakurtu dut. Argi eta garbi dago astekari eskuindarra dela eta orduan, ahoan bilorik gabe mintzo zirela, halaber idazten zutelarik.

Famatua da Hiriart-Urruty-ren artikulua Jules Ferry hil zelarik: “Bat gu-tiago” zuen titulua. Denek bazakiten framazona zela. Hain zuzen, hori agertzen da artikuluan, aipatzen delarik ere Jainko ikaragarri bat:

“Erraten ginuen ethorriko zela guzientzat haren (Jainkoaren) orena; men-turaz guk uste baino lasterrago sar-araziko ziozkatela *Harek* gaichtagin buruzagi, judu, framazon eta pagano diren bezalako horier beren irriak eta trufak.”

Urrunago, eskoletako legeak aipatzean:

“Ferry zen orduan ministroen buruzagi. Hura zuten framazon edo *hargin-beltz* direlako gizon tzar horiek orok beren aitzineko.”

(*Eskualduna*, 1893-III-24)

Bertze artikulua batean deplauki idatzia da: “Gure etsaia framazona da”.

(1893-III-24)

Hilabete baten buruan, “Kukua kantuz” deritzan artikuluan “bi zangotako” kukuak gogoratzen dira: “Kukuaz orhoitu naiz, egun hautarik batez, hura be-zala, *bi zangotako* bertze kuku batzu gogoan nindagolarik. Kuku hek deitzen ditugu framazonak eta Chuberoko aldean deitzen dituzte *harginbeltzak*”.

Hain zuzen, interesgarria da ikustea bi hitz baditugula euskaraz jende ho-rientzat: bat mailegatua, *framazona*, frantsesetik hartua eta bertzea, itzulpena, itzulpen bitxia nahi ala ez. Alabaina, “hargin” da “macon” delakoaren itzulpen zuzena, baina *franc* frantsesa *beltz* hitzaz itzultzeak erakusten du itzultzaileen ideologia. Frantsesez, *franc* hitzak erran nahi du *libro*, *askatua*, berez pentsa-tzen duen gizona, loturarik gabekoa.

Beltza, aldiz, kolore itsusia da, dolu-kolorea, gauaren kolorea, gauaz eta azpiz egiten diren jukutrien estalgia. Dudarik gabe, *harginbeltz* hitza mespre-txuz beta da.

Eskuindarren bigarren etsaia judua da. Juduen kontrako artikulua ager-tzen dira *Eskualduna* astekarian, bereziki 1894-ko azken hilabeteetan, hain zu-zen “Dreyfus auzia” aipatuz.

“Fuera Juduak” da artikulua baten titulua: «Zenbat aldiz erran dugu Frantzia guzia juduen eskuetan dela? Bizkitartean egia baizik ez dugu erran, eta ez orai-no egia guzia. Egia osoki erraiteko, erran behar da, ez bakharrrik juduen es-kuetan girela, bainan bai juduen zangopena.”

(*Eskualduna*, 1894-XI-9)

1894-ko abenduan, Dreyfus-en auzian sartuak gara eta maiz aipatua da au-zia *Eskualduna* kasetan.

“Dreyfus deithu soldado aitzindari arnegatu hartaz ahalik gutiena mintzo dire gorriak. Ahal bezen luze eta gorderik daramate haren auzia, nahiz eiki, Panameko ohointzat egin zuten bezala, solasa emeki emeki erortzerat utzi eta jendea holachet lokhararazi.

Itchura guzien arabera, hiltzea merezi luke zeren duen bere sor-herria itsus-ki trahitu, saldu. Nork nahi du enekin pariatu, halere, azkenean, ez diotrela ile-ondo bat ere burutik edekitzen.

Ez; ez dute otsoek elgar jaten. Badute Frantzian otsoek, elgar ausiki gabe, bildots eta zikiroki aski... aski maltsoak, oraino ere, Jainkoari esker!”

(*Eskualduna*, 1894-XII-7)

Zenbait asteren buruan, auzia bururatzera zoalarik, hona zer irakur zeza-keen “Judu traidorea” deitutako artikuluan:

“Egun bi hitz bakarrik; ez balire gure deputatuak diren bezen ez-achola-tuak eta juduen aztaparretan biribilkatuak, berehala ezar lezaketete legean Drey-fus horrek egin duen egitateaz hobendun izanen denak *hamabi tiro* ukhanen dituela, ahal bezen chuchen kopetaren erdian.”

(*Eskualduna*, 1894-XII-28)

Eta, hain zuzen, Michel Elissamburu hil zen egun berean *Eskualduna*-k eman zuen auzi-erabakiaren berri, komentario labur bat eginez:

“Judu traidorea preso dugu. On dakiola! Bi gogoetaren egiteko baduke arte.”

(*Eskualduna*, 1895-1-4)

Halakoa zen orduko giroa. Bortitza zen jendea hitzez eta egitez. Halakoa ziren gure arbasoak.





## HELETA ETA ELIZANBURU

*Heleta, 1995-05-26*

*Xipri Arbelbide*

Mixel Elizanburu heletarraren berri jakiteko begiratu dugu zer lur eta girotan sortu den. So eginen dugu herriko beste idazleak nor diren eta nolakoa zen Heleta haren denboran eta aintzineko urteetan.

Idazleentzat gibelka joanen gara orainkoetarik hasiz. Bost bagira bizi Jan Pierre Mendiburu bertsolaria, Mixel Etxeverri kantaria, Jon Casenave, Piarres Aintziart eta ni ...

Jan Pierre Mendiburu Ospatilekoa da, bertsolari bezela ezaguna. Bertsuak eta kantuak egiten ditu idatziz ere. Aurkituko dituzue Otxalde, "Pantxo eta Peio", "Xalbador eta Ihidoy", Joseph Lafitte, eta Mixel Etxeverriren dizketan; dizketan grabatuak izan gabe "Alaiak" taldeak eta "Brave eta Bessonart-ek" kantatuak bestalde. Liburu batetan agertu ditu bertsolaritzaren araudiak.

Bi antzerki baditu idatziak: *Gure Borda* eta *Ezkundu eta ezkonduak*, biak emanak izan dira.

\* \* \*

Mixel Etxeberry-k ere badu kantu bat edo beste eginik.

Jon Casenave sortzez Lehuntzekoa da eta Heletara ezkondua. Aspaldi hasia da idazten eta Hordago etxean agertu dira bere lehen olerki bildumak: *Zutaz amoroski* eta *Itsu Mandoka*. Mattin Lartzabal-ekin idatzi zuen *Azkenian dilindan* elaberria, hau ere Hordagok plazaratua. Azkue saria irabazi zuen *Ordu alferren segida* elaberriarekin. Hontarik ateraia da *Bidaia* Zabalettek egin ikusgarri musikala. Beñat Axiari eta Oskorriren dizketan ere aurkituko dituzue Jonen bertsuak.

*Maiatz* aldizkarian idazten du.

\* \* \*

Piarres Aintziarti bi liburu plazaratu dizkio *Maiatz*-ek: *Euskalherrian bizikletari*, Euskal Herrian barna egin bidaia baten kronika eta *Biziaren bazte-*

*rrean* bere autobiografía bat, nik dakitala, bakarra gure literaturan, molde horretakoa. Bestalde, *Maiatz* aldizkarian ere idazten ditu artikuluak.

\* \* \*

Azkenik hila, Etienne Salaberry, Garrako apeza, geroago aipatuko dugun baten familiakoa. Bere bizi guzia filosofia erakasle pasatua du Uztaritzeko seminarioan eta gero Villa Pia lizeoan Baionan.

Joan den gerla denboran Alemanian preso egona eta handik sartu ondoan aste oroz bi artikulu idatzi ditu *Herria*-n. Bat euskaraz, lehen orrialdean, *so egilea* izenpetzen zuela, bestea azken orrialdean, frantsesez, “La tribune libre du Prisonnier”. Ez zen artikulurik Europa, Baigura eta Heletaren aipamenik gabe.

Bi liburu idatzi ditu euskaraz. Bat *ene sinestea*. Tituluak erakusten ez duen bezela, bere fedez besterik aipu du autobiografia horretan. Urte hartan apez batek erlisionea ez zen gai batetaz egin liburu bakarra nire ustez.

Bigarrena, *Beñat ene adiskideari*, gazte bati idazten zizkion gutunak.

*Jakin* aldizkarian badu artikulu luze bat filosofiaz.

Frantsesez ere bi liburuxka idatzi ditu.

Norbaitek noizbait biltzen balitu *Herrian* idatzi dituen artikulu guziak babilteke zenbait libururena: dotzena erdi bat orrialde aste oroz, hiru ehun bat urtean. Egin karkulak zenbat heldu den hogoi eta hamar bat urtez.

Arnaud Aguirre Irybarnegaray ezagutu du Etienne Salaberry-k 1932an zendu baitzen, Juvenal martyr deitzen zen fraile bezela. Etxe honetan sortu zen, Larralde, bataiatu duen apez gorriak izenpetu ageriak erakusten duen bezela. Aita Tolosako zuen: Bixente Aguirre, sartzeko ate gainean eta supazterreko harri ederrean ikus daiteke izena. Haren gatik dut ene haurtzaroan beti entzun etxe hau “Bixentetea” zela nahiz aspaldiko izena “Arantxokoa” duen. “Norbeit” zitekeen etxearen izena aldatu bazuten jendek. 1806an sortua, Tolosan beraz, ekainaren 2an Juan Batista Aguirre eta Mariana Zubillaga ziztuelarik aita amak. Karlisten gerla gatik etorri zen ihesi honara frailearen iloba batek erran didanaz.

Mari Iribarnegarai Heleta Barbetegiko alaba dendariarekin ezkondu zen 1839an: bere ofizioa “alpaga-tier”, erran nahi baita espartin edo espartin oihal egile, dirua ematen zukeen ofizioa denbora haitean ikusiz etxe honetan hemen egin dituen obrak (1).

(1) Vicent Aguirre eta Marie Iribarnegaray-en ezkontza.

Zazpi haur izan zituen. Seigarrena, Arnaud, Heletan hain segur Eñaut deitzen zutena, idazlea, 1850ko otsailaren 11an sortua. Lopez Mendizabalek dioelarik Tolosan sortua zela kondatu ziola berak behin baino gehiagotan gaizki ulertu du. Herriko etxeko sortzeen kainerrean eta bataiokoetan hemen sortua dela ekarria da (2).

Saletar fraileetan sartu zen 1864an, Inocentius bere herritarraren segida hartu zuen Hazparneko ikastetxeko zuzendari bezela, 1902an. Aintzinean ibilia zen Uztaritz, Pabe, Plaisance du Gers, eta Hazparnen berean ere (1868-69, 1871-79, 1880-92). Hazparnetik landa, Donostia, Gallarta, Irun eta Maulen egon zen, Mauleko agurerrian hiltzeko 1932ko otsailaren 7an.

*Eskualduna* astekarian idatzi zuen eta 1899an plazaratu zuen *Vocabulaire trilingue français-espagnol-basque* liburua, Lamaignière inprimategian 224 orrialdekin: Hazparnen baziren Frantzia, Espainia eta Euskal Herriko ikasleak eta deneri frantsesa irakasteko idatzi zuen liburu hau.

Broussain-ek Azkueri idatzi gutun batetan irakur daiteke “Je vous apporterai le 18 à Fontarrabie le recueil des chansons populaires du frère Juvenal”. Hori ere baditake nonbeit baina nehork ez du oraino aurkitu.

\* \* \*

Mixel Elizanburuz bere aitamak baizik ez ditugu aipatuko.

1826ko otsailaren 18an sortu zen Errekartian, aita zuelarik Jean Elizanburu “préposé des douanes à la brigade de Hélette” eta ama, Gracianne Indart (3).

Ondoko urtean sortu zen Jean anaia, Zaldunbidia, etxean gure haur denboran Kauteraainia deitzen genuena; egia erran, ate gaineko harrian idatzia da Jean Goussou kauterak obra batzu egin zituela etxe hortan 18garren mendean.

Hiru urte berantago, 1830ko hazaroaren 2an sortu zitzaien arreba bat, Jeanne, Zeanbelar Etxezaharrean. Iduri luke gure mugazainak urte oroz egiten zuela Jondoni Martine.

\* \* \*

Elizanburu sortu zelarik bazuen zenbeit urte zendua zela Santiago Garra de Salagoiti apez, Garrako semea, 1808an hil baitzen idazle hau.

Herriko Etxearen gaineko harrian irakurtzen ahalko duzuen bezela 1736ko martxoaren 4an sortua zen, beste apez ainitz eman duen Garra etxe infantzo-

(2) Arnaud Aguirre-n sortzea.

(3) Michel Elissamburu-ren sortzea.

nean: zortzi kondatu ditugu 19. mendean, horietarik 5, Santiago deitzen zirelarik.

Aipatzen duguna Akizen apeztu zen, nahiz Amikuze eta Oztibarre ziren Akizeko diosesarenak, Heleta Baionarena zelarik. Bikario Jeneral izan zen filosofia irakatsi ondoan Tolosan eta Lyonen.

1776an ardietsi zuen, lehiaketa baten bidez, Baionako mariñel eskolan, hidrografia irakasle postua. Frantziako hidrografia irakasle guzietan gutun bata igorri zien beren irakaskuntzaren berri jakiteko. Bihi baten programa ez zitzaion gustatu eta berea egin zuen. 1781an inprimatua izan zen “Académie des Sciences” erakundearen eta Condorcet markesaren baimenekin *Les éléments de la science du navigateur* titulupean (4). Luzaz ez zen beste libururik baliatu Frantziako mariñel eskoletan. Irakasle ona zitekeen zeren eta 19. mendean hark formatu kapitainak ikusten dira Frantziatik Hego Ameriketara zihoazen untzien kapitain eta hori, Le Havre bezen handiko portuetan.

1791an Narbonara igorri zuten hango mariñel eskola sortzeko. 1794an Donibaneko eskola sortzeko itzuli zen Euskal Herrira eta hor bururatuko du bere bizia.

Arte horretan izan zen Iraultza famatua. Zin egin zuten apez errepublikanoetarik izan zen, eta zin egin zutenetan bere apezgoari uko egin ez zioten bakarretarik.

Heletako erretor ofizial izendatua izan zen 1793an (5), erretor bikarioak Elizondora joan zirelarik ihesi. Ez dakit noiz arte egon zen hemen.

Bere burua euskaldun senditzen zuen eta euskaldunen fama gora nahi zuen. Hark zuen frogatu Renau D’Elizagarai famatua euskalduna zela, Armen-daritzeko seme eta ez Biarnesa aintzek zioten bezela. Ordukotzat dio euskaldunek aurkitu zituztela Amerikak Kristobal Kolonek baino lehen, balea arrantza egiten zutelarik Ternuako itsasoan.

Euskal Herriko eskoletaz ere arranguratu zen: “Departamendu guzian ibili naiz. Ez dut eskola plantako bakar bat ikusi” dio. Irakasleak formatzeko bi eskola proposatu zituen. Bat Paben, bestea Donibanen, hau bere gaian hartzen zuela, irakaskuntza urririk emanez.

Irakasle gaiari eskatzen ziena: idazkera ederra, ortografia ona, izartzen jakitea eta irakaskuntzarako jitea. Hiru hilabetez formatzea proposatzen zuen.

Ez dakigu zer ondorio izan zuen Garraren proposamenak baina 1791an bozkatu baitzuten lege bat mariñel eskoletaz, ministroari eman zizkion aholkuen arabera legea izan zen. Iduriz Donibanen ez da behin ere izan irakasle eskolarik. Euskal Herriko irakasleak Biarnon formatuak izan dira beti.

(4) Santiago Garra-ren liburua.

(5) Santiago Garra apez iraultzaile Heletan.

## XIX. MENDEKO GIROA

Horra beraz Heletako idazleak. Santiago Garra Salagoity apez irautzaitetik eta Elizanburu erregetiar eta xuri errabiatura gaitzeko bidea bada. Zoin da zinez Heletako semea?

Heletarrak iraultzaile ziren Iraultza aintzin. Etxetiarrek parte hartzen zuten herriko biltzarretan nahiz Nafarroako ohiduren kontra. Eta Nafarroako estatuek oroitarazi zutelarik lege zaharra, etxetiarrek bildu ziren eta beretarik bat izendatu, behar zen tokian behar zena egin zezan gauzak aldatzeko (6). Zergak finkatzen zituzten biltzarretan parte hartzen ez bazuten, ez zutela zergarik pagatuko. Ez zela zuzen etxeko nagusien minoriak mana zezan gehiengoa zuten etxetiarrei.

1756a arte lau juradoetarik bat etxetierra da normalki ez zuketelarik biltzarren parte hartzen ahal ere.

1789ko biltzar batetan, Iraultza hasi aintzin, badira lau emazte (7). Frantzia 1945ean izanen dute bozkatzeko eskubidea emaztek!

Iraultzak finkatuko duelarik 5 egun soldataren heineko zerga pagatu behar dela bozkatzeko eskubidea izateko, Heletan erabakitzen dute eguneko soldata 10 sosetakoa izanen dela (Hazparnen eta Bastidan 20 sosetako delarik) ahal bezenbat herritarrek goza dezaten bozkatzeko eskubide "baliosa" (8). Eta etxe bezenbat bozkatzale izanen da lehen bezela! 186.

Iraultza elizaren kontra bihurtu zelarik, helatarrak ere Iraultzaren kontra bihurtu ziren eta bestalde egin ahalak egin ziztuzten soldado ez joateko (Espainiarekilako gerla hemen izan zen: 105.000 soldado Iparraldean 100.000 jende ez zitekeelarik 1848an bigarren errepublika sortzearekin, Iholdiko kantonamenduan kontseilari nagusi edo deputatu foral gorria izan zen: Dindaburu, Hoztako notario eta auzapeza, Xahoren aldeko errabiatua. Oihanen legea aldatzearen alde ziren eta Napoleonekin galdu bozkatzeko eskubide "baliosa" berriz ardietsia zuten. Errienta baitute propaganda egile handiena, Heletan Napoleon III-ak erabaki zuen bere kargutik kentzea: auzapeza, kontseiluko jaun, notable eta izenpetzen dakiten guziek gutun bat igortzen dute beren errientaren alde. Hor ikusten ditugu izenpetu dutenetan, auzapez, uxer, notario, kontseilua osoan, elizako fabrika eta jaun erretorra bera, Larralde, Agirre frailea bataiatu duen hura hain zuzen. Hau ere ideia beretakoa zen "aux idées politiques fort douteuses" diote erdaraz (9). Gorrien aldekoa, nahiz apezpikutegiak apez guziori gomendatua zien zuri bozka zezaten eta bozka araz. Ikusiz denbora haie-

(6) Etxetiarren sindika Herriko biltzarrean parte hartzeko.

(7) 4 emazte herriko biltzarrean.

(8) Bozkatzeko eskubide baliosa.

(9) Errienta kargutik kendua; apez gorria.

tan apezpikuak zuen larderia, beste bide bat hartzeko, gure erretorrik ez zukeen dudarik bere hautu politikoaz.

Izenpetu zutenetan, bi Agirre, baten izena ez da emana baina bestearena bai, Mariano, eta hau Hegoaldeko izena da; Bixenteren familiakoa ote zen? Izenpetu zutenetan ere 4 mugazain.

Elizanburu hoin zuria eta erregetiarra izan bada ez zait iduri Heletatik duen ideologia hori. Frantzia behere horietan ibili delarik ditu beretu ideia horiek.

Aguirrez beste bi hitz erran nahi nituzke. Ez zen Hegoaldeko bakarra Heletan ez eta lehena. 18. mendean ikusi ditut Arrankudiaga, Bilbo, Barrakaldo, Donostia, Labio, Nabarte eta Garraioako jendeak.

Heletarrak ere joaten ziren Hegoaldera. Bat hil zen Garesen Konpostelara zoalarik beilaz, beste heletar batzuekin, Beste bat Tuteran, teilagin zelarik. Mende ondarrean, geroztik ere gertatu den bezela, Santiago Aingidart Bergarako neska batekin ezkondu zen eta Madrilen gaindi egon ondoan Tolosan finkatu, Beñat Haran, beste hemen.), errekezisioneri ihes egiteko, apezak gordezkeo.

Tropa Frantsesak Espainiatik itzuli zirelarik, Español eta Frantsesen muga Heletan izan zen 8 hilabetez. Heletan ziren armada frantsesak. 1813ko uztailetik eta 1814ko otsaila arte Euskal Herria larrutu zuten Frantsesek, beren jeneral batek zioenaz etsaiaren lurretan ere ezin onartuak izanen baitzen haien jokamoldea (10).

1814ko otsailaren 14an hemen hasi zuen bere eraso Wellington Ingelesak, Soult Frantsesaren kontra, Heleta eta Lekorneren mugetako ordokian: “Martiren ordokia” deitzen dugu hori, ez baitu beste komentariorik behar.

1821an 4745 libera damu domaia hunki zuten Parisetik. Iduriz armadak herriari ofizialki eskatua pagatzeko zen; errekezizione eta horrelako; ez gerglaren makurrak ordaintzeko, ez eta zortzi hilabetez soldado frantsesek egin sarraskiak (11).

Zorraren parte bat baizik ez zen eta 1833an ikusten dugu herriko kontseilua protestatzen zorraren bigarren partea etortzeko delakotz. Ez da sekulan agertzen etorri denik, nahiz 1821an “gerglaren zorra sakratua zela” oroitarazten zuten heletarrek.

1833an ikusten dugu ere arazo gogorrek badituztela oihantzainekin eta hartu erabakiak ez badira aldatzen herriaren erdia gutienez hondatua izanen dela: bazter guziak ametzez estalgiak ziren eta kabalek ez zuten alatzeko eskubiderik “oihanak” ziren tokietan: bizkitartean ameztoi eta larre baitezpadakoak ziren

(10) Soldado frantsesen basakeriak.

(11) Euskaldunak soldadoek larrutzen dituzte.

hemengo laborarientzat. Oihanen auzia Xahorekin trenkatua izanen da, II. Errepublikak etortzearekin 1848.an. Horra Xaho gorriaren alde izateko arrazoi bat!

Jendea ez zen Bonapartista edo erregetiar izaten ahal Elizanburu haurra eta fraile gazte zelarik, oihanetaz eta gerlako zorraz Parisekin zuten auzia gatik.

Heletar batekin sozietate bat muntatzen zuela auerdinta egiteko.

Horien ganik ikasi ote zuen Heletako bidea Agirrek?

Beñat Haran, Buenos Airesetan aberastua zen eta Tolosara joan aintzin etxe bat erositua zuen Baionan 15.000 liberetan. Izana zen beste heletarrik ere Ameriketara: hargin bat Kaienan Baionako burges batentzat etxea eraikitzen. Beste bat Santo Domingon hil zen 68.000 liberako diruketa utzirik. Ondoko egina zenak, Larre medikua igorri zuen diruaren bila, 7.000 libera ematen ziola lana eta bidaiari sari.

Kanpoan ibiliak ere, apezak, notarioak, medikuak (ikasketak Aix en Provence eta Montpellier-en eginak zituzten Heletako Larre medikuek), Santamariako jaunak armadetan, Beltzuntze kolonela, Lamarens kapitaina, barberoak (bidaiari bat egiten zuten itsasoan, lanean ofizialki hasi aintzin). Etxe bat deitzen da Mariñeldegia eta 18. mendean 2 heletar hil dira itsasoan gure jakinean.

Kanpotik etorkin aintz baten izenak ikustea aski da; Dumon, Dubois, Duclos, Goujon, Laborde, Lapeire, Lajunie, Marot eta beste. Gehienak ofizialeak. Baziren ere 18. mendekotzat mugazainak: "la vigie du tabac" aipu da eta Lajunie "receveur au bureau des domaines" ekarria da. Hona Heletako mugazainek izenpetu paper bat 1803an: an dix de la République (12).

1782an Lekorneko emazteak oldartu ziren: emazte batek Heletako pagagia pasatu zuen bere mugasaria eman gabe, 1553 eta 1688ko arrestra batzuen araberako egin beharko zukeelarik: dena hortarik abiatu zen (13).

Horiek denak erakusteko heletarrak ez zirela zoko batetan bizi ziren moda zaharreko jende batzuk, mundu zabaleko berri jakin gabe. Froga bat gehiago, Elizanbururen ideologia ez zela Heletakoa.

## IPARRALDEKO GIROA

Heleta besteak ez bezelako herri bat ote zen? Ez! Oihanen arazoa aipatu baitugu, Iparralde guziak sofritzen zuen Parisek egin lege horretaz eta bazterrek zapartatu ziren 1848an bigarren errepublika sortzearekin. Jendeak oldartu ziren Donibane Garazi, Armendaritze, Amikuze, Oztibarre, Muzkildi eta Atarratzen. Oihaintzainak tirokatuak izan ziren eta bahituak. Armada sartu zen Atarratzen.

(12) Heletako mugazainen pasaana.

(13) Heletako muga Iraultza aintzin.

Amikuzeko oldartzearen ondotik, Bithiña eta Behauzeko auzapezak kargutik kendu baitzituzten, Behauzeko kontseiluak hura bera eman zuen berriz karguan eta bigarren aldiz kendu behar izan zuen kargutik Parisek.

Ordukoa da Barbier-k kondatzen duen Lohilakat-en istorioa. Oldartzeen ondotik auziak izan ziren. Abokatek azpimarratu, Pariseko libertate haizeak pusaturik altxatu zirela laborariak. Eskerniaren doiako gaztigua eman zietan zenbeiti, gehienei osoki barkatu, salbu mugaz bestaldera ihesi joanak zirenei. Auzitegien eztitasuna ikusirik, hauek etxera itzuli ziren. Zenbeit hilabete berantago jujatu zituzten eta artean giroa aldatua baitzen, preso eman: hauetarik izan zen, Erramun Mindurri Lohilakateko nagusia eta 3 urteren presondegia eman zioten, 500 frankoren izuna bestalde.

Iparralde guziak gorri bozkutzen zuen, ezker muturreko Xahoren alde: ez zen deputatu pasatu, Biarnon ez zuelakotz aski boz bildu eta bozemaile gehiena Biarnon zelakotz. Deputatu pasatu ziren Renau eta St Gaudens ere gorriak ziren baina moderatuagoak.

Libertatearen zuhaitzak landatu baitziren herri guzietan, apezak benedikatzten zuen eta askotan apezak zuen mintzaldia egiten, hala nola Arbelbide batek Domintxinen. Toki bakar batzutan baizik ez zuten gogor egin apezek hala nola Landibarren: ilundu eta sartu baitzen apeza etxen, atea ez zuen ideki nahi izan gazteei eta aizkora ukaldika hautsi zioten, artean leihotik ihes egiten zuela.

Oztibarren bandera gorria eman zuten libertatearen zuhaitzaren puntan Ibarla, Bunuze eta Donaixtin. Dendaburu kontseilari nagusia hiru aldiz preso eman zuen Donapaleuko auzitegiak. Presondegitik atera zelarik, gazteak atean zeuden dantza jautziak ematen zituztela beren gizonaren ohoretan. 200 jendeak igurikatzen zuten Lartzabelako bide kurutzean Bunuzera laguntzeko 3 atabal eta bi banderekin.

Elizanburu Hazparnen zelarik zuten Napoleon hautatu Errepublikako lehendakari frantsesek, ez ideologiagatik, baina biziki aberatsa zela eta dirua emanen zuela uste zutelakotz. Departamenduan 60.000 boz bildu zituen, bigarren zelarik Cavaignac 11.000ekin. Frantzia mailan Napoleon-ek 5,5 milioi boz izan zituen, Cavaignac-ek 1,5 eta Ledru Rollain-ek 371.000, hauek biak ezkerrekoak zirelarik.

Harritzeko bada ere Cavaignac gorriari eman zion gehiengo Hazparneko kantonamenduak (911 boz, Napoleon-ek 542!) honen aita zelarik izana terrorismoaren buru hemen iraultza denboran. Baionan 2658 boz bildu zituen inperadore beharrak, ezkerreko Cavaignac eta Ledru Rollainek 2622 egiten zutelarik.

Hazparnen larrukin eta laborari ziren jendeak eta Bordaxurik "bur jesak" deitzen dituenentzat ari lanean, hauek baitzuten dirua egiten lurreko mozkinak



eta larruak komertzializatuz. 1846an gosetea izan zen eta karrikako saltegiek janariak biziki kario eman zituzten. Garat Pikasarriko misionestak kristoren predikua bota zuen igande arratsalde batez, ifernuko suaz mehatxatzen zituela jende debot horiek. Humiliatu ziren: prezioak apaldu zituzten. Ez da harritzeko 1842an, misionestegiari datzikola Garat-ek sortua zuen eskolak arrakasta izan bazuen: hor dira zuzendari izanen Elizanburu eta Agirre.

Hor ere nabari da Elizanbururen ideologia ez zela nagusi, ez bizi izan den Hiriburun, ez eta gero egonen den Hazparnen. Liburuetarik eta Frantzia behere horietako fraileen etxeetan zukeen bildua ideologia antisemita, antierrepublikar eta erregetiarra.

Aitortu behar dut halere mende ondarrean hasi dela idazten eta mendea aldatu zela ordukotzat. Hirugarren Errepublika sortua zen, antiklerikala eta elizako eskolen kontrakoa, Jules Ferry-rekin. Baina harri ninteke Hazparreko eskolan, gazteak ez baziren harmekin tiro egitera joaiten, urtean sei aldiz, Jules Ferry-k erabaki bezela (eta nahiz Jules Ferry-k zuen hori erabaki!), gaztetxo horiek, Alemanak Altzazia eta Lorraine-tik fueratzeko gai izan ziten handik eta zenbeit urteren buruan. Behin ere ez dut deus irakurtu Elizanbururen luma xorroxtak horren kontra idatzirik! (14).

---

(14) Harmekin tiroka eskolan.



# **DOKUMENTUAK**

prezente

Don Juan de Dios... Don Juan de Dios... Don Juan de Dios...



Handwritten signature

Don Juan de Dios... Don Juan de Dios... Don Juan de Dios... Don Juan de Dios...

minaberrigana... Aguirre... Inamoral





# É L É M E N S

D E

## LA S C I E N C E

D U

### NAVIGATEUR,

PAR M. l'Abbé GARRA DE SALAGOÏTY, Professeur d'Hydrographie à Bayonne, Correspondant des Académies Royales des Sciences de Toulouse, de Bourdeaux, &c.

→ ————— ←  
PREMIERE PARTIE.  
→ ————— ←



A PARIS, RUE DAUPHINE,

La seconde Porte cochère à droite par le Pont-Neuf.

De l'imprimerie de L. CELLOT, Gendre & Successeur de CH.-ANT. JOMBERT, Libraire du Roi pour l'Artillerie & le Génie,

AU FOND DE LA COUR.

M. DCC. LXXXI.

AVEC APPROBATION ET PRIVILEGE.

DOUANES PASSAVANT pour circuler dans les 2 myriamètres (4 lieues communes) d'étendue de la REPUBLIQUE.

DIRECTION de Bayonne.

DOUANE d'Arret

N° 468

Préposé à la police du commerce extérieur, laissez passer pour M. Garra de Salagoïty, de meurant à Bayonne, les objets ci-après qu'il a déclaré à M. le Contrôleur pour transporter à Bayonne, les livres de son ouvrage intitulé : Éléments de la Science du Navigateur.



*Handwritten signature or mark*



Au indigit l'acte quatre vingt trois  
 Deuxieme de la Republique Francaise etotise  
~~du mois de Janvier, ayant mis en bas de~~  
~~celle et au verso les papiers de~~  
~~lettre provisoire, pardevant~~  
~~un~~ ~~royal~~ ~~publique~~ ~~un~~ ~~premier~~ ~~de~~  
 teneur son nomme, a compare en  
 presence du Citoyen Jacques Gara et  
 Gallagot, pretre, Chevalier de l'Academie  
 des sciences de Toulouse, Bourlaure, de la  
 marine et professeur de l'ecole nationale de  
 Hydrographie de Narbonne de par tout  
 de la suite et que un exhibit au depart  
 des papiers verbaux de l'Assemblee Generale  
 du content de M. Palau du 29 de  
 Signe et l'Etat de l'Etat, par tout en  
~~un~~ ~~premier~~ ~~de~~ ~~celle~~  
 d'arriver par l'integration de  
 M. Marie G. devant une  
 Gara via aulx exhibit la  
 Canonique a luy auordir par le Citoyen  
 Tarnan premier Maire General en l'absence  
 (1/2)



III E 2812

1789

On 25 juillet 1785:  
Sont, c'est de  
certains melajors  
et fermiers de  
cette se helette:


Donnant la liste suppl. suivante et depuis les concussions  
ont comparu, Martin debur, Dominge gardo, fardet-  
Marbave, Juanes giel, amigamy, arunas hila, goaux  
hidriant, Norand ditte, higo, te, cristian foga, de  
roming, vpparrabal, Jacques Echejoury, Juanes  
vpartigarday, Gileluz, Lanauzay, jiamen elal, de  
goaux, Dargaino, arnaud d'umon, quilleu Nicouren  
goques vpparrabal, Norand foga, de et pasual  
Larrouso, touz melajors et fermiers de ce lieu de  
helette, qui ont ord. que par un acte abusif et injuste  
les melajors et fermiers de cette paroisse sont excommuniés  
et debarrez de tout droit de participation, de se  
assemblez, de la communication de toutes les charges et  
fonctions, que malgre cette exclusion, et par un abus  
une exigence plus palpable les prest. de la paroisse  
ne font qu'un nombre de prest. de la paroisse  
et forcent les exploitans a une contribution de la paroisse  
sous le nom de Capitalium, tanten que ces prest.  
n'ont aucune part dans l'administration de la paroisse  
(comme) quel est censé recouvrable, que les exploitans  
devient cins, ou avants, dans les occasions de la paroisse  
d'aucunes charges et fonctions, ou un mot particulier  
d'administration, ou d'ord. ex. de la paroisse  
Contributions, et fire tout une contribution arbitraire  
que le prest. de la paroisse ne peuvent avoir le droit de faire  
la loi au prest. de la paroisse et les exploitans n'ont point  
d'autre des prest. de la paroisse et est obligés de relever  
un terme aux prest. de la paroisse et de relever  
ou d'acquiescer les annués exploitans et d'acquiescer  
souvent, pour leur hinde, de la paroisse et d'acquiescer  
lequel se chargent de faire toutes les dépenses  
nécessaires pour être de charges, et de la contribution  
excepté et la Capitalium personnellement et d'acquiescer  
des autres charges, a tel effet de la paroisse et de  
ou de la paroisse, et d'acquiescer que de la paroisse  
dire et acquiescer et que de la paroisse.

etc.

dy



L'Assemblée ainsi formée Le maire  
à cet effet que par le décret de l'Assemblée Nationale  
La Constitution des Municipalités Rendu le 14 du mois  
de Décembre dernier et les articles 10 et 11 du Rég. qui la  
Sanctionné et qui en a ordonné la prompte exécution les  
dites municipalités ont tenu le 14 du mois de Janvier de la  
nouvelle municipalité par les Citoyens indigènes ayant  
sans le vote de faire ce choix, et en outre les conditions  
requises pour être Citoyen actif ou Electeur par le  
laissant une Contribution directe de la valeur locale et  
affermé de trente livres et une Contribution au moins  
de dix journées pour être éligible la présente assemblée  
a délibéré sur les fixations du Prix de la journée  
de travail qui sera dans les différents pays à faire devancer  
pour la voir toute incertitude qui s'élevait sur ce point  
des impositions par ordre de l'Assemblée et de cet arrêté  
à l'unanimité des suffrages pour faire jour au  
quel est possible, les habitants de la Communauté le  
Droits et privilèges réservés de Citoyens actifs de dix  
journées de travail Rendu par le dit  
moyenant quoy, sur la présente assemblée qui paye  
affermé de trente livres par an et éligible Celui qui  
paye une Contribution directe de quarre sur plus il sera  
fait incessamment un Tableau dans lequel seront  
Classés les Citoyens éligibles et ceux qui ne sont  
Simples Electeurs, afin que ceux la seuls soient  
Compétents pour l'élection qui doit être faite  
incessamment des membres de la nouvelle municipalité  
et ceux qui ont leur écrits ont cy signé et ayant  
été pour le dit jour de présent pour secrétaire  
Greffier **V. V. V.** Maire **Saintqui**  
L'Assemblée



 ONZIEME DIVISION MILITAIRE.

# ORDRE DU JOUR.

*Bayonne, le 5 Juillet 1813.*

Des rapports multipliés parviennent de toutes parts sur l'indiscipline et le désordre que commettent les militaires qui se trouvent et passent à Bayonne, et sur-tout l'arme de la cavalerie. Ils se répandent dans les bourgs et villages; ils forcent les habitans à leur donner vivres, fourrages; ils pillent, volent leur linge et leurs effets; ils les vexent et les maltraitent de toute manière: les chefs sont souvent témoins de ces excès, et ne les répriment pas.

Cette conduite, qui ne pourrait pas être tolérée, même en pays ennemi, est bien plus répréhensible chez nos compatriotes. Il est temps d'arrêter ces excès, qui pourraient se propager s'ils restaient impunis.

En conséquence, tout militaire qui se permettra d'exiger de l'habitant autre chose que le logement, et qui se porterait

à quelque excès envers lui, soit en lui prenant des denrées de quelque espèce qu'elles soient, soit en le maltraitant, etc., sera arrêté et livré à un Conseil de guerre.

Messieurs les Officiers qui n'empêcheront pas ou qui toléreront le moindre excès, seront arrêtés et livrés à un Conseil de guerre, comme en étant personnellement responsables.

Nulla considération n'arrêtera, pour que les Militaires et les Officiers coupables soient punis conformément aux lois.

LE GÉNÉRAL DE DIVISION,  
Commandant la 11.<sup>e</sup> et celle de réserve,  
BARON LHULLIER.

Stat. Indicateur des particularités de cette Commune qui ont été envoyés en 1816 par l'Ép. de la Guine

raisonnant  
de  
en France  
Néanmoins de  
Sauf à l'égard  
de  
de

	nombre d'individus de ce sexe qui ont été envoyés en France en 1816	montant de leur contribution en 1816 en principal et en supplément	qualité de leur profession	Observations
un homme marié et un garçon	Sexe		? 60 F.	Après avoir été en 1816 pour 1816. Bouvier pour travailler. Les décharges et autres en 20. Régiment à cheval à Navarre, il y fut. Les vaches furent prises en cette ville, et les distributions à la troupe française qui y étaient. Dans, il ne s'en trouva jamais en le press qu'il est 200 francs ce qui se réduit à la mine, d'ailleurs sans ressource quelconque pour son provisionnement
un Bachelier par son nom et son état	Sexe		400 F.	Après avoir été par son état également en bouvier avec le bœuf, le bœuf y mourut et on le pauvre. Les bœufs furent aussi tués et distillés, ils valent 400 francs.
un homme marié et un garçon	Sexe		72 F.	Après avoir été par son état également en bouvier avec le bœuf, le bœuf y mourut et on le pauvre. Les bœufs furent aussi tués et distillés, ils valent 400 francs.
un homme marié et un garçon	Sexe		100 F.	Après avoir été par son état également en bouvier avec le bœuf, le bœuf y mourut et on le pauvre. Les bœufs furent aussi tués et distillés, ils valent 400 francs.

Après avoir été par son état également en bouvier  
avec le bœuf, le bœuf y mourut et on le  
pauvre. Les bœufs furent aussi tués et  
distillés, ils valent 400 francs.

24 Février 1848, mais tout d'abord il embrassa avec ardeur les idées les plus avancées de la révolution; il devint dans la partie du canton d'Isoldy, qui habite l'ouest de des révolutionnaires exaltés, de Chabu, de Windaburu, de J. Gaudens de Urreaga, le propagateur infatigable des journaux anarchiques, des écrits incendiaires, notamment du fameux catéchisme Renouveau. On le vit dans les élections de la Constitution, de la commune, du Conseil Général et de la législative appuyer de son influence, de ses démarches, de ses paroles, de ses votes les listes socialistes, et cela ouvertement, d'autorité administrative supérieure d'en inquiéter en fin et proposer sa suspension; malheureusement le Conseil Supérieur ayant été consulté, sans qu'un préalable les documents et renseignements nécessaires lui eussent été fournis, déclara dans la séance du 11 Avril 1848, qu'il ne pourrait donner l'avis qui lui était demandé. Cependant la réflexion et l'action énergique du Gouvernement opérèrent un grand changement dans le canton d'Isoldy; les esprits s'y calmèrent, beaucoup d'hommes égares revinrent à une plus saine appréciation de la situation; les hommes d'ordre reprirent courage, et avec le courage retrouvèrent leur légitime influence; les agents de désordre, des vireux peu à peu isolés et leurs prédictions n'eurent plus d'écho autour d'eux; je pensai un moment, après une conversation que j'eus avec Sarraburu, qu'il avait suivi l'impulsion générale, qu'il avait rompu avec ses anciens amis, qu'il avait abandonné la pensée de la réalisation de folles et coupables utopies; j'ai vu par sa conduite récente qu'il m'avait trompé. En effet, en Octobre 1851, lors des élections départementales, (élection de M. Odartès) il a encore praché avec les hommes de désordre, il a assisté à un concubule où se trouvaient Windaburu; il a prêché l'abstention au marché de St. Martin d'Arberone, enfin il est parvenu, par des manœuvres éloignées du scrutin les deux tiers des électeurs de sa commune. Sa pernicieuse influence s'est fait ressentir encore et au vote du 20 Décembre et à celui du 24 Février.

Sarraburu est marié; il est assez convenable dans sa vie privée, on lui reproche cependant d'avoir manqué de délicatesse dans deux circonstances, en niant ses devoirs et en refusant de les payer; il y a été conduit par des jugements du Juge de paix de ce canton. De ce qui précède il est facile de conclure, qu'on ne peut le nommer le Receveur Général, que Sarraburu est peu digne des fonctions de confiance dont il est investi; mille part on ne doit désirer un pareil instituteur; surtout sa présence sera dangereuse; mais nous obstinés, il est urgent de le déplacer; car, quelque soit le poste qui lui est destiné, il ne pourra y faire le mal qu'il a fait et qu'il perpétue à Hélette.

En effet, il a à Hélette des moyens d'action qui ne retrouverait pas dans d'autres résidences; il y a une influence qui lui serait difficile d'établir ailleurs; ainsi il y

trouve un point d'appui dans le Maire, dont nous attendons tous les jours la révoation, et même dans le Curé fort docteur en politique; il y a un grand nombre d'individus sous sa dépendance par des fonctions multiples et comme secrétaire de fait de la mairie (Il a été remplacé dans ces fonctions par l'huissier Rumaire, homme fort d'élite, chez lequel il loge, son ami intime et son collègue politique); et comme agent de la Société mutuelle, et surtout, comme gérant à peu près officiel des propriétés de M. S. de Girardin et de M. de Ludo.

Je suis  
V<sup>re</sup>

Le Procureur de la République  
Signé: De Terralde.

*Donnée copie conforme.*

Le Recteur de l'Académie  
(des Basses-Pyrénées),  
L. Gaviegan

**DOUANES IMPÉRIALES.** PASSAVANT pour circuler dans les 2 myria-  
 mètres ( 4 lieues communes ) Frontières de la  
 République.


**DIRECTION**  
 de Bayonne.

*DOUANE*  
*d'Hellette*

N.º *468.*

**P**RÉPOSÉS à la police du commerce extérieur, laissez  
 passer pour M. *François Amey* - demeurant  
 à *Hellette* - les objets ci-après qu'il a  
 déclaré *aller à Cambo* - pour transporter  
 à *un établissement à Hellette* Savoir :

*taille ovale d'achat en argent*  
*en tôle, par Jean Marguère*



Le présent nul après *un* jour  
 Fait au Bureau des Douanes Impériales d' *Hellette*  
 le *19.07.1911* an *1911*

*Manu* Le Receveur,  
*Mirville*



2... Page

Vou l'le venit, ou l'le avoit pris les agneaux et  
 Chevreauz e bargis sur le cheval quelle s'en devoit  
 Et l'ille, les destinot pour les commens en la boue  
 Nous a respondu qu'elle venoit du marche de belette quelle  
 avoit les porteur de la moue pour les vendre de laquelle  
 elle avoit paye les droits dus au Roi y aubureau de  
 Bayonne Et que ce quelle n'avoit pu vendre estoit  
 envee sur son cheval que quant aux agneaux et chevreauz  
 chargis sur son cheval l'le les avoit achetez au marche  
 de belette en Navarre quelle les transportoit a bayonne  
 lieu de son domicile Et n'a voulu nous dire son nom a  
 qu'entendant nous s'es commin, avons sommé la dite  
 femme de nous représenter l'acquit a payement d'un  
 droit de foraine dû sur les agneaux et chevreauz a  
 leur sortie de Navarre pour le labour de quelle avoit du  
 acquiescer au bureau de belette Et celui du droit de foraine  
 de Bayonne quelle a du payer au Bureau de men diende  
 quelle laisoit dire l'le n'avoit eue de son son  
 Menant que nous fions des voleurs qui laigeons de  
 Notre propre abondance le payement de ce droit pour  
 nous l'approprier qu'il n'estoit payé de, quelle ne l'avoit  
 jamais payé, pour les bestiaux quelle avoit exportés  
 de Navarre en labour de quelle ne l'avoit point payé pour  
 ce que quelle voiteroit naturellement, Et quelle ne le payoit  
 point a l'avenir sur quoy nous avons espliqué a la dite  
 femme que le droit de foraine de Navarre et de ce n'est  
 point nouveau qu'il estoit a la connaissance du publicq  
 que depuis l'ordonnance de l'establissement de ce droit en  
 devant citée Il y avoit toujours eu sur la limite de ce  
 deux provinces des bureaux établis et notamment  
 a belette ou l'le venoit pour en faire la recette quelle  
 n'ignoroit certainement pas conséquemment qu'  
 c'estoit avec connaissance de cause et propos delibé  
 quelle faudoit celui qui estoit dû sur les agneaux

13<sup>e</sup> ANNÉE.SUPPLÉMENT N<sup>o</sup> 2

1882

---

**RÉPUBLIQUE FRANÇAISE**


---

**Département des Basses-Pyrénées**


---

**BULLETIN OFFICIEL**

DE

**L'INSTRUCTION PRIMAIRE**

PUBLIÉ

**AUX FRAIS DES INSTITUTEURS**


---

**EXERCICES MILITAIRES**


---

**BATAILLONS SCOLAIRES**
**Gymnastique**


---

**SOMMAIRE**

	Pages
Décret du 6 juillet 1882 : formation et organisation des bataillons scolaires.....a.....	43
Arrêté du 6 juillet 1882 : délivrance des fusils et munitions scolaires ; exécution du tir.....	45
Circulaire du ministre de la guerre ; réunions en armes dans un but d'instruction militaire.....	48
Circulaire relative aux bataillons scolaires.....	49
Arrêté du 30 juillet 1882 : poinçonnage des fusils destinés aux bataillons scolaires.....	51
Arrêté du 20 décembre 1882 : instruction militaire des enfants non incorporés dans les bataillons scolaires.....	51
Arrêté du 30 décembre 1882 : armes à l'usage des élèves des établissements libres, ne faisant pas partie des bataillons scolaires.....	52
Circulaire relative aux appareils de gymnastique dans les écoles primaires.....	53

## MIXEL ELISSAMBURUREN BIZIA ETA LANAK

(Heleta, 1826-Hazparne, 1895)

*Martin Jose Lasa, lasalletarra*

*Heleta, 1995-05-26*

Heletako andere auzapeza eta gainontzeko agintariak,  
Euskaltzainburu eta euskaltzain jaunak,  
Jaun-Andreak,  
Agur.

Joan den apirilaren 22an egon nintzen lehenengoz Heletan. Heleta eza-  
gutzera etorri ginen lau “Frera”. Elizan norbait armonioa jotzen zegoen. Baio-  
nan ikasten ari den M<sup>elle</sup>. Noblia gazteak igandeko abestiak prestatzen zituen.  
Herria bakez beterik zegoen. Hiru pertsona besterik ez genituen ikusi. Horien  
artean, haur bat pelotalekuan, pelota dantzan jartzen zuelarik. Halakoxe bat  
joan den mendean, Heletako plaza eder handian, Mixel Elissamburu mutikoa.

Hona bada berriz hemen zuen artean. Nolatan hori? Badu Piarres Charrit-  
ton jaunak jendeak amore eman dezan argudioak aurkezteko abilezia. Adore  
emaila trebea da. Bera eta bere emaztea etorri zitzaizkidan Donostiarat apiri-  
laren 29an zera esatera: “Freren arteko norbaitek eman beharko luke hitzaldi  
bat Mixel Elissamburu lasalletarrari buruz”. Nola esango bada ezetz?

Hitzaldi hau ematean, Iñaki Olabeaga eta Nikolas Alzola gure ordenako  
bi Anaia zendu maiteen tradizioari jarraitzen diot: biak baitute idatzi Anai In-  
nocentius / Mixel Elissambururi buruz. Baina, badut nik ezin eman ugari, ga-  
rarrantzi haundia duten zenbait eremutan: hasteko esan behar dizuet, historiarako  
zaletasuna baldin badut ere, ez nauzuela ez historigile, ez filologo, ez literatur  
idazle, teologoa baizik. Gauza ezberdinak dira historia deskriptiboa egitea ala  
ideologiaren historia kokatu eta ingurunean txertatua egitea. Nire ustez, Elis-  
sambururen zenbait liburuk bigarren historia-motaren beharra izango lukete.  
Elissamburuk idatziriko “*Framazonak*” eta “*Frantziako hirur errepubliken ix-  
torioa laburzki*” izenburuko liburuak batez ere, girotze eta kontestualizazio ho-  
rren premian daude. Galdera franko, beraz, dantzan neure buruan: Nolakoa izan  
da XIX. mendea Frantzian? Nolakoa mende horretako ibilbide ideologikoa?  
Are zehazkiago, nolakoa Ipar Euskal Herriko mugimendu ideologikoa XIX.  
mendean zehar?

Eta hor Joseba Intxaustik orain urte batzuk zion hura gertatzen zait: “*Ez gabiltz hemendarrak [hegoaldekoak, alegia] ipar Euskal Herriazko jakitatez jantziegi, beharbada jakiteko erosotasun handirik ez dugulako ere bai. Hangoen historiari gagozkiola, pobreago gara oraindik, «beste» historia bati loturik egina bait da haiena*” (1) [zuen, esan nahi du]. Interpretazio eta kontestualizazio baten beharrak eta hegoaldekoen ezagupen murriztaren egiaztapenak bultzatu zuen, hain zuzen, orduan Joseba Intxausti, “*Mintzaira, aurpegia: gizon*” (2) eta “*Zezenak Errepublikan*” (3) bi liburu interesgarri baino interesgarriagoen argitarapenaren artean “*Iraultzaren hildotik*” beste hura argitaratzera.

Dena den, noan besterik gabe hitzaldi honen harira: Mixel Elissambururen bizia eta lanak.

## I. FRAIDETU ZEN ARTE

Mixel Elissambururen familia-aztarnak bilatzen saiatu izan dira Iñaki Olabeaga (4) eta Nikolas Alzola (5) lasalletarrak. Joan Bautista Elissamburu olerkari famatuaren giza-ingurunea argitzen zutelarik, Antonio Maria Labayenek (6) eta Louis Dassance-k (7) ere haren lehengusu Mixeli buruzko datu interesgarriak eman zizkiguten. Nik neuk ere Erroman, lasalletarron Etxe Nagusiko Artxiboan Hazparneko eskolari eta Elissambururi buruzko dokumentazioa aztertzerik izan dut (8).

Erromako gure artxiboko “*Grande Fiche*” delakoan datu hauek aurkitzen ditut: “*Frère Innocentius, nommé dans le monde Elissamburu Michel; fils de Jean, et d’Indart, Gracianne, né le 17 février 1826, commune de Hélette, can-*

(1) Joseba INTXAUSTI, *Iraultzaren hildotik*, Jakin liburu sorta (3), Jakin, Arantzazu-Oinati, 1972, 10. orr.

(2) Jean HIRIART-URRUTY, *Mintzaira, aurpegia: GIZON!*, Aitzin-solasa: Piarres LAFITTE, Jakin liburu sorta (2), Jakin, Arantzazu-Oinati, 1971, 221. orr.

(3) Jean HIRIART-URRUTY, *Zezenak Errepublikan*, Jakin liburu sorta (4), Jakin, Arantzazu-Oinati, 1972, 216. orr.

(4) Iñaki OLABEAGA, *Michel Elizanburu, Anai Inozenzio, Salletarra. Bere bizitza eta lanak*, Egan, XII (1959, Abend.) 142-154. orr.

(5) H.V.B [Hno. Valentín Berriochoa = Nikolas ALZOLA GEREDIAGA], *Documentos de dos vascófilos lasalianos naturales de Helette (Frère Innocentius y Frère Juvénal-Martyr)*, BRSVAP, XX (1964) 174-175. orr.; *Nota adicional a los documentos de los Hermanos Inocencio y Juvénal-Martyr*, BRSVAP, XX (1964) 325-326. orr.; *Elissamburu el fraile*, BRSVAP, XXIV (1968) 108-109. orr.

(6) Antonio Maria LABAYEN, *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras*, col. Auñamendi, 124, Auñamendi, Donostia, 1978, 221+[9]. orr.

(7) Louis DASSANCE, *Recherches sur la filiation du poète J.-B. Elissamburu*, Gure Herria 41 (1965, 5, Abend.) 278-288. orr.

(8) ACG (= Archivio Casa Generalizia dei Fratelli delle Scuole Cristiane), Via Aurelia, 476. Roma.

ton d'Iholdy; arrondissement de Mauléon, Dép. des B<sup>es</sup>. Pyrénées” (9). Jaiotagiriak zera dio haren gurasoei buruz, “Jean Elissanburu préposé de la douane dans la brigade de Helette. Demeurant dans la maison d’Errecart, âgé de trente un ans”, eta ama “Gracianne Indart âgée de trente un ans” (10).

Hobeto ezagutzen dugu aitaren aldetiko jatorria. Mixel Elissambururen aita, Jean, eta Jean-Baptiste olerkariarena, Michel izenekoa, anaiak ziren, biak baigorritarrak, ogibidez biak aduanetako goardak.

Askotan aipatuko zituzten Errecart-ekoen artean aduanetako arazoak. Ez zen hori, haatik, ele bakarra izanen: eskola eta irakaskintza mundua ere jalgi zitekeen Errecart-eko sukaldera: zeren denen arbaso xaharra, Piarres Elissamburu aitona baigorriarra, errient izana baitzen Baigorriin, eta osaba Michel, olerkariaren aita, goarda sartu aurretik, irakasle izana baitzen Orzaize bailarako Arroasan.

Noiz arte bizi izan zen Mixel mutikoa Heletan? Lafittek dio, eta beste askok berarekin: “*passé son enfance à Hélette*” (11). Egiaztatu beharreko datua iruditzen zait. Izan ere, Baionako aduanetako artxiboan Mixel/Innocentius-en bi anaia aipatzen dira, douanier izandakoak, bata Jean, Heletan 1827an jaioa, bestea Martin, 1832an jaioa, baina ez Heletan, Suhuskunen baizik. Ez ote da gertatuko hemen ere Dassance jaunak Michel osabari buruz dion hura?: “*Les ménages de douaniers étaient à cette époque appelés à de fréquents déplacements*”, eta hor frogatzat Michel Elissamburu baigorritar olerkari famatuaren aitaren dantzak (12)?

Mixelen aitak izendapen berria izan zuen, Hiriburu (St. Pierre d’Irube)-rat, Olabeagaren eta Lafitte-ren esanetan. Lafitte data jartzera ausartzen da: “vers 1838” (13). Ordurako Lasalletarrak Baionarat etorriak ginen. Baionako ateetan dago St. Pierre d’Irube. Lasalletarren eskolara bidali zuten ikastera bere gurasoek. Baina zein eskolaz ari gara? Zeren eta ordurako Anaiek bi eskola mantentzen zituzten. Bata 1822tik aurrera, Alexandre Dubrocq Baionako auzapeza zelarik, “le Petit Collège” tradizio handiko ikastegian, non lasalletarrek 1822tik 1852ra bitartean irakatsi baitzuten, bestea Saint-Esprit izeneko auzoan (14). Ja-

(9) ACG, GF 405, *Grandes Fiches: Frère Innocentius*, 91 eta 289 errefer.

(10) “*Michel Elissanburu à Errecart*”: ik. jaiotagiria in H.V.B., *Documentos de dos vascofilos...* Xipri Arbelbideri esker dut jaiotagiri beraren fotokopia bat, et honen arabera zuzendu ditut BRSVAPkoan sartu ziren akatsak.

(11) ik. DASSANCE, *Recherches sur la filiation...*, 287. orr., 12. oh.; Piarres LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, Klasikoak bild., 35gna, Euskal Editoreen Elkarte / Erein, Donostia, 1990, 204. orr.

(12) ik. DASSANCE, *op. cit.*, 279. eta 282. orr.

(13) ik. DASSANCE, *op. cit.*, 287. orr., 12. oh.

(14) Izengabe, *Les Frères des Écoles Chrétiennes à Bayonne*, Bulletin des Écoles chrétiennes (Maison S. Joseph, Lembecq-lez-Hal, Belgique), 4<sup>e</sup> ann. (1910) 28-46 orr. Hor pasarte interesgarri hau irakur daiteke:

“*La satisfaction des familles chrétiennes de Bayonne n’étaient point platonique: elle provoqua*

kin badakigu Anai Jurson tolosarraren zuzendaritzapean egon zela (bera baitzen orduan bi eskoletako arduraduna) baina ezin esan ziurki bi horietako zein eskoletan egin ote zituen Mixel Elissamburu-k ikasketak, ezin esan non eza-gutu ote zituen Frerak edo Anaiak, ezta ere non somatu zuenik ere beraietako bat izatera deitzen zuela Jainkoak.

Halere, Mixel beraren obretako pasarte batek susmoa ematen dit pentsatzeko ea ez ote zen Saint-Esprit auzoko eskolan ibili. Eskola-garaiko kontuak izaten ohi dira-eta honen antzekoak... Begira zer dion: "*Orai duela berrogoi eta hamabortz urthe, ene haur denboran, ikhusten ginituen, Santo Izpiritutik atheratu eta, borthaz bortha, philtzar-tzar, luma eta burdin zahar erosten zabiltzan Yuduak eta heyen emazteak; sakelako mokanesak harturik, edo arropa kantail batekin, eginen ginituen urde beharriak bezelako batzu, eta yauzteka pharatuko ginen Yudu eta Yudusa heyen aitzinean oihu eginez: «Raka, raka! raka!».* Hek koleran laster; gu, irriz laster! Zer orhoitzapena! Orduan zalhu ginen, orai maltso gabiltza!" (15).

Noan berriro Erromako Artxiboko "Grande Fiche"-ra. Zera dio: "*Entré au Noviciat de Toulouse, le 15 Juillet 1841 (ez 1844, Lafittek idazten duen bezala (16) ), pris l'habit, le 15. Août 1841; employé, le 11 février 1842, à la Com<sup>te</sup>. de St. Antonin, à une petite classe; voeux triennaux, le 21 Septembre 1843, à Bordeaux, renouvelés en 1844-45-46-47-48-49-50-51. Profession [perpétuelle], le 21 Septembre 1851, à Bordeaux. Bréveté, le 19 Août 1848, à Dax*" (17).

Hor dugu, bada, Mixel Elissamburu heletarra euskal lurraldetik urrun 15 urte zituelarik. Izan ere, urte asko igaro behar izango dute oraindik lasalletarrek

---

*une fondation nouvelle. Au nord de l'Adour, s'étendait la petite ville de Saint-Esprit, alors chef-lieu de canton des Landes, aujourd'hui simple quartier de Bayonne. Il s'y trouvait depuis le seizième siècle une nombreuse et très influente colonie israélite qui, en 1839, sur vingt et un sièges municipaux, en avait conquis huit avec la présidence. Et cependant, à l'unanimité, le Conseil demanda une école de Frères qui, établie à titre de quartier, compte presque aussitôt deux cents trente élèves. L'installation en fut faite par le Frère Directeur Jurson, qui eut la satisfaction d'envoyer au Noviciat les premières vocations bayonnaises" (ibid., 33. orr.; bokaziodun batzuen izenak ematen ditu, baina horien artean ez dago Mixel Elissambururena). 1820an ireki zuten Kristau Eskoletako Anaiak Baionan lehenengo eskola. Aipaturiko Anai Jurson-en zuzendaritzak 1835etik 1842ra arteko epea bete zuen; ziur aski berari zor zion Elissanburuk Anaia izateko gonbidapena eta laguntza. Saint-Esprit-eko eta Baionako judutar elkarteari buruz berri guztiz interesgarriak aurki ditzake irakurleak in "Les Juifs de Bayonne. 1492-1992", Baionako Musée Basque-ek argitaratua.*

Ik. baita ere, Georges RIGAULT, *Histoire Générale de l'Institut des Frères des Ecoles Chrétiennes*, V. t., Plon, Paris, 1945, 44. orr. Eta "Frère Jurson (1806-1894)": in *Choix de Notices Nécrologiques des Frères des Ecoles Chrétiennes*, 1<sup>e</sup> série, Procure Générale, Paris, 1933, 9-31 orr., batez ere 11-14. orr.

(15) Michel ELISSAMBURU, *Frantziako hirur Errepubliken ixorioa laburki*, Klasikoak bild., 18gna, edizio honen prestatzailea: Gabriel FRAILE, Euskal Editoreen Elkarte / Erein, Donostia, 1988, 152. orr.

(16) ik. in DASSANCE, *op. cit.*, 287. orr. eta LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, 204. orr.

(17) ik. gorago, 9. oh.

Euskal Herrian fraile-gai moldaetxe bat izateko: 1885era arte, hain zuzen, Mauloko “*le château Ager*” ou “*le domaine Aguerria*” izan-arteraino, aita Jean-Pierre Arbelbide misionestaren ofizio onei esker (18). Elissambururekin batera, 1841an 118 gaztek sartu ziren Tolosako nobiziaduan. Haiek garaiak! (19)

Nobiziadua, erlijioso bizitzarako lehenengo urratsa. “*Le postulant Mixel Elissamburu s'appellera dorénavant Frère Innocentius*”. Urtebeteko nobiziadua burutzeraz iritxi gabe, berehala irakaskintza-praktikak. Ez Akizen, Olabeagak (20), eta bere segidan Lafittek (21), dioten bezala, Tarn-et-Garonne-ko departamentuan baizik. Saint-Antonin herrian, udalaren kristau-eskolako (22) “*dans la petite classe*”, hau da, 5-6 urteko ume txikienekin, hain zuzen.

## II. HAZPARNE

Mixel Elissamburu Saint-Antonin-era iritxi orduko bazebilen freren zuzumurrua Lapurdiko Hazparnen. Izan ere. 1841eko urtarrilaren 19an “*A mon très Honoré Frère Philippe Supérieur Général de l'Institut des Frères des Ecoles Chrétiennes, faubourg St. Martin, Paris*” idatziriko gutuna igorri zion DEY-HERALDE apez misionestak Hazparnetik, honako hau esanez:

*“En vérité, je ne sais comment vous témoigner ma reconnaissance ainsi que celle de toute la paroisse d'Hasparren pour l'accueil que vous avez daigné accorder à notre demande.*

*Vous ne pourriez pas vous imaginer le pieux élan de six mille âmes pour un établissement des Frères au milieu de nous. Je ne crois pas que vous puissiez avoir dans toute l'étendue de votre institut un théâtre plus heureux pour le bien public et pour le bien particulier de votre excellente congrégation. Notre pays donnera bien des sujets à votre noviciat. Bien indigne sans doute d'une pareille faveur, mais Prêtre, je me jette en esprit à genoux à vos pieds, mon très Honoré Frère, pour vous prier, pour vous conjurer de nos envoyer au plus tôt trois chers Frères à Hasparren; déjà on y travaille à organiser les salles et la maison, et tout sera prêt incessamment. [...]”* (23).

Deyheralde apezaz, Hazparneko apez misionesta eta elkarte-buru zen orduan. Jean-Baptiste Garat hazpandarra izan zuten misionestek fundatzaile eta

(18) Georges RIGAULT, *op. cit.*, VII. t., 99-100. orr. Eta ARBELBIDE, *Archives des Missionnaires de Hasparren (Basses-Pyrénées, Pays Basque)*, Tip. “La Vasconia”, Buenos Aires, 1898, 162-177. orr.

(19) Frère LEMANDUS, *Histoire des Frères de Toulouse 1789-1850*, Toulouse, L. Sistac, 1909, 402.486-491. orr.

(20) Iñaki OLABEAGA, *op. cit.*, 143. orr.

(21) Piarres LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, 204. orr.

(22) Frère LEMANDUS, *op. cit.*, 313.330. orr.

(23) Erromako ACG, NC 570, 2. dos., 1.

buru. Aita Garat, izengoitiz “*aita Pikassarri*”, Minotz auzoko Pikassarri etxe ederreko seme baitzen (24).

Garbi asko azaltzen du Arbelbidek fundazio honen xedea eta arrazoina: “*Il (le P. Garat) conçut alors (pendant qu’il était vicaire à Hasparren), en 1822, le projet d’établir une maison de missionnaires. Les âmes se trouvaient dans une grande pénurie; voilà pourquoi, le P. Garat procura le plus grand bien au basques, en élevant une maison de missionnaires. En 1830 éclatât encore une misérable révolution, qui dispersa les missionnaires de toute la France, même ceux de Hasparren. La tourmente révolutionnaire passée, le P. Sarrote fut le seul à revenir à Hasparren; mais de nouveaux auxiliaires arrivèrent au P. Garat*”: Aita Deyheralde, Etcheberry, Hiriart, Hirigoyen, Curutchet, Cotiart, Berho de Macaye. “*Tous les pères émirent les trois voeux de religion, et vécurent sous la sauvegarde de la Pauvreté, de la Chasteté et de l’Obéissance*” (25).

“*Vous ne pourriez pas vous imaginer le pieux élan de six mille âmes...*” (Deyheralde, 19.01.1841eko gutunean). Zer eta nolakoa zen orduko Hazparne? Joseph ZABALO jaun hazpandarrak, “*L’église de Hasparren à cent ans*” liburuskak guztiz interesgarria, orain ehun urteko Hazparnerat itzultzen ditu begiak: Ez zaigu erraz neurtzea, dio, gure herriaren garrantzia, eta aipamen zehatz batzuen bitartez, aise asko igartzen du batek “*que Hasparren faisait réellement figure de capitale d’un Pays Basque intérieur beaucoup plus retranché qu’aujourd’hui*”. Sei mila biztanleko herria. Garai berean, Donibanekek lau mila zituen; Hendaiak, 1.500; Kanbok, 1.600; Maulek, 2.000; hegoaldean, Irunek, 5.000; Bilbok, 8.000. Gainera “*l’activité économique de Hasparren fait l’envie du Pays Basque et l’admiration des étrangers*” (eta datu zehatzak ematen ditu guzti hori frogatzeko) (26).

1841eko urriaren 11n iritxitako hiru Anaia lasalletarrak eskola ematen hasi ziren. Fr. Délphin, zuzendaria; Fr. Jumaël, euskalduna, eta izen bitxiko Fr. Kyrec, “*dit Augustin*” (27). Bi ikasgela ondo beteak; ikasturtearen bukaeran, 100 bat mutiko (28). 1848: zertzelada esanguratsua hau irakur genezake Erromako gure Artxiboak gordetzen duen “*Historique*” delako batean: “*Quoique le fr. Delphin fût universellement aimé et estimé à Hasparren, on regrettait cependant qu’il ne fût pas basque; voilà sans doute pourquoi en 1848 on le remplaça par le Fr. Innocentius, jeune frère basque, breveté à Dax deux mois aupara-*

(24) Deyhéralderi buruz, ik. ARBELBIDE, *op. cit.*, 149-152. orr.; Aita Garat-i buruz, ik. ARBELBIDE, *op. cit.*, 33-39. orr.

(25) ARBELBIDE, *op. cit.*, 36-37. orr.

(26) Joseph ZABALO, *L’Église de Hasparren à cents ans*, Typo-offset Larre, Hasparren, d.g., 36 orr.

(27) ARBELBIDE, *op. cit.*, 51. orr.

(28) Erromako ACG, NC 570, 1.dos., 19-20. orr.



*vant. Sous son habile direction l'école des Frères continua à prospérer...*" (29).

Baina Elissamburu Hazparnera etorri ondorengo sei urteko kontuak dira horiek. Izan ere, sei hilabete besterik ez zituen egin Saint-Antonin. 1842ko irailean etorri zen lehenengoz Hazparnera: eskola ematera eta elkarteko sukaldaritzaren ardura hartzera. Bi urte terdi ondoren, Akizen ikusten dugu (1845.02.27tik aurrera). Akizetik Hazparnerat ekarri zuten 1848ko irailean, Zuzendari eta Ikuskari kargua eman zioten. "Behin betirako Zuzendari"..., zeren hortik aurrera, 1892ko apirila arte kargu berean ikusten baitugu Hazparnen (30). Berrogeitalau urte zuzendari! Aspertzeko lain... Ez, baina. Hustuketa ederrean, bere guztia emateko lain!

Eskola honi buruz datu guztiz interesgarriak aurkezten ditu Arbelbidek "*Archives des Missionnaires de Hasparren*" liburuan (31); horrez gain, badituzte esku artean Deyheralde apaizak Pariseko Anaiburuari idatzitako gutun pila eta handik berari igorritako erantzunak. Horien artean, Anai Mixel Elissamburuk idatzitako batzuk ere, altxor preziatua (32). Baina nahikoa zaigu lauzpabost gauza garrantzitsuenak aipatzea.

San Jose izeneko ikastegia eta barnetegia. Ikaslegoa: batzuk hazpandarrak (kanpoko ikasle eran), besteak inguruko parroketakoak (barneikasle eran). Hautzat etxetxo bat erosi zuen Deyheralde, eta *Pensionnat St. Joseph* izenez bataiatu zuen. Bi eratako barneikasleak: egun osoko zerbitzuaren truke (irakaskintza barne) hilabeteko 20-25 libera ordaintzen zituztenak, eta mantenua etxetik ekarri, bertan prestatu eta lojamenduaren truke hilabeteko 6.50 libera ordaintzen zutenak. Hamar urte bitartez Hazparneko eskola école libre/eskola pribatua izan zen. 1852an, udalbatzak hala eskaturik, eskola publiko eta komunala bihurtu zen. Anai Innocentius irakasle publiko izendatu zuen Pabeko Akademiaburu Jourdan jaunak. Maila hori gorde zuen eskolak 33 urte luzetan, hau da 1885ra arte; urte horretan, "*par décision du Conseil départementale, l'école communale tenue par les Frères a été laïcisée, malgré le voeu unanime du Conseil municipal. Mais comme le local appartient aux Missionnaires, les élèves ont continué à fréquenter les mêmes classes, après qu'elles ont été annexées à l'école libre déjà existante [...]*".

Ospe eta emaitza handiko eskola bihurtu zen San Jose Ikastegi hura. Herriko jendearekilako zerbitzuaz gain, barnetegia goraka joan zen urtez urte: 1830en 30 barneikasle egon ziren; 1852an, 84; 1856an, 104; 1860an, 163 eta horrela mantendu ziren 1884ra arte, non "*les nouvelles alarmantes du choléra en France et surtout à Toulon et à Marseille, ont occasionné le départ d'une*

(29) Erromako ACG, NC 570, 1. dos., 3. orr.

(30) Erromako ACG, GF 405, *Grandes Fiches: Fr. Innocentius*.

(31) ARBELBIDE, *op. cit.*, 44-51. orr. (*Fondation de l'École de Frères (Lettres)*), 51-55. orr. (*Extrait des Études*), 56-60. orr. (*Pensionnat: cuisine, dortoirs, etc.*).

(32) Erromako ACG, NC 570, Hasparren, 1-5 dos.

*trentaine d'élèves espagnols avant la fin de l'année scolaire*". Baina Hazparnerako joerak berehala hartu zuen ohizko gorakada. Hurrengo urtean 130 baziren, 1887an inoiz baino gehiago izatera iritxi ziren eta bere hartan jarraitu zuen. Ez beti halere. Kubako gertakizun eta katramilek ondorio ekonomiko latzak ekarri zituzten Espainian, ondo nozitu zituen familia askoren patrikarak; haren ondorioz, Hazparneko bidea hartzen zuen mutil andana eder hura gero eta urriago bihurtu zen (33).

Hor dugu, bada, Mixel Elissamburu eskola horretako kapitana pilotu trebe baino trebeago: Begira zer dioten Arbelbide eta Haristoy-k honi buruz.

*"Le F. Innocentius n'avait que vingt-deux ans, quand il prit la direction de l'école. Instruit, aimant passionnément l'étude, doué d'un caractère énergique, quelque peu rude, et de talent rare d'enseigner, il donna un nouvel essor aux études. Tel fut son succès que le nombre des pensionnaires s'éleva jusqu'à 160, venus les uns du pays basque français, les autres d'Espagne où el colegio de Hasparren jouit d'une réputation bien méritée. Les espagnols au nombre de plus de 100, dont 40 madriléns, vinrent de toutes les parties du royaume voisin. Aussi fallut-il agrandir plusieurs fois le pensionnat"* (34). "Bezero" hauek kontuan hartuta argitaratu zituzten, hain zuzen, *"Vocabulaire trilingue français-espagnol-basque"* eta *"Recueil de Chants Religieux Latins, Basques, Français, Espagnols à l'usage des élèves de l'École Chrétienne de Hasparren"* (35).

*"Caractère énergique, quelque peu rude"*: bai, hala omen zen gure Mixel Elissamburu heletar hazparnetua. *"Eta denbora berean dena bihotz zen, dena*

(33) Erromako ACG, NC 570, Hasparren, 1. dos., 3. *"Extrait de l'Historique"*, eta datu haultzak: Archives Historiques F.E.C (124, Cours Gambetta, 33400 TALENCE), ED Hasparren, *"Hasparren (Historique)"*, 94. orr. eta hurr.

(34) ARBELBIDE, *op. cit.*, 52. or.; I. OLABEAGA, *op. cit.* 143. orr.; ik. baita ere, LIZUNDIA [=Nikolas ALZOLA GEREDIAGA], *Páginas históricas*, in *San Marcial* (—rgano del Colegio San Marcial y de la Asociación de Antiguos Alumnos de Irún), V (1925), n.º 25 (enero): Hazparneko ikastegian ikasle izandako zenbait aipatzen ditu; ik. ikasle horietakoren bat in P. Vicente GUIMER—, S.J., *Marino y Misionero o el P. Julián de Madariaga. De la Compañía de Jesús. Misionero en las islas Marianas, Carolinas y Marshall*, Imp. y Lib. de Eulogio de las Heras, Sevilla, 1929, 19-22. orr. (ez al da hau izango Anai Nikolas Alzolak goiko artikulua horretan zeharka aipatzen zuen liburua?): *"En su biografía «MADARIAGA, MARINO Y MISIONERO», que escribió el Padre Pons (?) se habla ampliamente (?) del Colegio Hasparren y de un Hermano de origen español (?), que suponemos sería el Hno. Juvénal-Martyr"* (Aita Juan Pons jesuitak ere bilbotar misiolariari buruz biografia bat idatzi ote zuen? Badakigu, hori bai, elkarrekin egon zirela misiotan); Saturnino GALLEGÓ f.s.c.-ek, *Sembraron con amor. "La Salle". Centenario en España (1878-1978)*, San Sebastián, 1978, Hazparneko beste ikasle ohi bat aipatzen du (ik. 461. orr., 45. oh.).

(35) F. J.-M. [Frère Juvénal-Martyr = Arnaud Agirre Iribarnegaray], *Vocabulaire trilingue Français-Espagnol-Basque suivi des Verbes auxiliaires, des Conjugaisons modèles, des principaux Verbes irréguliers, etc. Le tout dans les trois langues*, Bayonne, A. Lamaignère, 1899, VIII+ 224 orr.; *Recueil de chants religieux latins, basques, français, espagnols à l'usage des élèves de l'école chrétienne de Hasparren*, Bayonne, impr. Lasserre, 1893, 295 orr.; bada 1900ko beste argitalpen bat ere, 271. orrialdekoa.

*maina erientzat, dena emaitza behardunentzat, eta dena othoitz denentzat*" (36). Bertzalde, garai hartako pedagogiak gaztigua onartu eta laudatzen zuen, bai familia barruan, bai eskolan. Zaplastekoa eta gaztigua orduko heziketa ohiturak ziren. Ondo asko esaten du Lafittek leku berean: "*Ez batere gaix-takeriaz, bainan iduri batzitzaion gizonaren naturaleza ez ditakela hez bortxa-ka baizik.*" Eta beste pasarte hau ere: "*Erraiten ohi omen zuen: «gaztigitzen ez dakienak ez daki zer den maitatzea; amodioz gaztiga ditzagun maitagarria-go egin nahi ditugun adixkideak*". Ondo jarria zioten, beraz, hazpandarrek, "*saindu mokor*" izengoiti esanguratsu hura.

Ez da uztekoa beste pasarte interesgarri hau: "*L'abbé Deyhéralde était un homme trop clairvoyant pour donner à ses enfants cette instruction à outrance de nos jours, qui décline tant de jeunes gens et dépeuple nos campagnes. Avant tout, il était pour l'éducation de l'enfant, pour la formation de son caractère, de sa volonté, et de son coeur. Ses idées étaient partagées par le F. Innocentius. Bien avant notre temps, ce dernier donnait des notions d'agriculture à ceux de ses élèves que leur naissance appelait aux travaux des champs; il les initia aux secrets ou aux avantages de la chimie agricole. Il ne cessait de leur faire aimer leur maison natale, la terre de leurs ancêtres, les traditions chrétiennes du Pays basque*" (37).

Eta beste hau: "*Le F. Innocentius dirigea son école pendant quarante-quatre ans avec le même succès, jusqu'à ce que, en 1892, chargé d'années et d'infirmités, il passa sa charge au F. Juvénal, son ami et compatriote. Nous ne parlerons ni de son inexorable fidélité aux devoirs religieux, ni des souffrances atroces de sa dernière maladie endurées avec la plus grande résignation; nous dirons seulement que toujours au courant de tout ce qui se faisait dans son école, il consacra les rares répités de sa maladie à composer d'excellentes brochures dans la langue basque, qu'il possédait admirablement*" (38).

### III. MIXEL ELISSAMBURU, EUSKAL IDAZLE

Hasteko pentsamendu hau datorkit lumara: *idatzi* zuelako, eta *euskaraz idatzi zuelako* dugu gaur gogoan Mixel Elissamburu. Horregatixe ospatu nahi izan duzue gaur heletar hau Euskaltzaindiak eta Heletako herriak. Ez genuke, ziur aski, horrelakorik egingo, euskal idazle agertu izan ez bazen (39).

(36) P. LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, 205. orr.; ik. Iñaki OLABEAGA, *op. cit.*, 143-144. orr.

(37) ARBELBIDE, *oc. cit.*, 53-54. orr.

(38) ARBELBIDE, *oc. cit.*, 52-53. orr. Liburu hauek aipatzen ditu hor: 1.º *Framazonak eta Frantziako hirur errepublikak*; 2.º *Joannes Batista dohatsuaeren bizia*; 3.º *Zer ziren leheneko (sic) Eskualdunak*.

(39) Euskal idazle izateaz gain, euskalduntasunaren ereile eta suspertzaile izanaren merituz

Liburu hauek utzi dizkigu:

a) Historia eta giro politikoarekin zerikusia dutenak, bi liburu:

1) *Framazonak*, 1888 edo 1889an argitaratua.

2) *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepubliken ichtorioa laburzki*, 1890.

b) Euskal ohiturekin zerikusia duen liburua: *Lehenagoko eskualdunak zer ziren*, 1889.

c) Hagiografia sailean, La Salleko santuaren bizia: *Joannes Batista dohatsuaren bizia*, 1891.

d) Deboziozko liburu bat: *Sakelako liburuchka edo giristino guzientzat on den esku liburu ttipia*, 1892.

Baditu bertsoak edo olerkiak ere.

Deskriba ditzadan piska bat liburu horiek.

## 1. Framazonak

62 orrialdeko “*liburu ttipi edo labor*”ra. Azaleko izenburua, “**Framazonak**”. Barnekoa, berriz, luzeagoa: “**Zer izan diren eta zer diren oraino Framazonak munduan**”. Izenburu laburrez ezagutua eta aipatua izan da. 1888ko edo 1889ko liburuskak dugu (Bayonne, Imprimerie Lasserre, rue Gambetta, 20) (40).

bikaina aitortu behar diogu Mixel Elissambururi, dudarik gabe, Hazparnen irakaskintzan eta eskola-zuzendaritzan bota zituen urte pila haietan. Lafittek, Jean Hiriart-Urruty aipatzen zuen eskola hartako ikasle izandakoen artean: “*Lehenik ibili zen eskolan Hazparne, fraiden manupean, eta han ezagutu zuen «Frère Innocentius» famatua, Michel Elissanburu, «saindu mokor», eskual idazle bizia*” (in “*Mintzaira, aurpegia...*”, 17. orr. Gaur eguneko beste Jean Hiriart-Urruty Euskaltzaindikoa egin zuten egunean, agur hitz hauek zuzendu zizkion Villasante Euskaltzainburuak: “*Hazparne hiri famatua da, euskal literaturan anitzetan aipatua, Lapurdiko hiri handienetakoa, euskara atxiki duten herrietan tarrotuena segurik. Euskal literaturaren historia egitean hamaika aldiz topo egin dut Hazparneko herriaren izenaz. Hemen zen eta da oraino Misionesten etxea, zeinetan bizi izan baita euskal idazleatarik franko. Lasalletarrek ere kolejio bat jarri zuten hemen gazteentzat et hortik pasatuak dira idazle hoietarik ez gutti. Eta hala beti Hazparneren izenaz topo egiten nuen. Beste zenbait Hazparnen bertan egonak dira apez. Eta azkenik beste batzuk Hazparneko bereko semeak dituzue. Hazparneko Misionest izandakoen artean hor da Haramboure... hor da ere Arbelbide... Hazparneko kolejioan ikasitakoen artean, berriz, euskal idazle mordoa dugu: Lap-hitz, Barbier, Landerretxe, Monseigneur St. Pierre... Eta Frère Innocentius bera, Lasalletarra, Hazparneko kolejioko buru, Elissamburu poetaren lehengusua, euskal liburuen egile da hura ere. Ez da mirestekoa hainbeste idazle euskararen amodioan sutuak atera baditu.” (ik. EUSKERA, XXII, 2. aldia (1977), 323-324. orr.).*

(40) Noizkoa da liburutxo hau? Vinson-ek 1890koa dela dio (*Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Paris, 1891, 408 orr.). Zalantzan jarri beharreko data da hori. Gabriel Frailek

“XXX.” sinatzen duen norbaitek zertzelada interesgarri batzuk ematen ditu: “*Irakurtzaile Maitea, asko presunen chedetan sartzeko, ESKUALDUNA izena duen gazetan agertu izan diren artikulua, Framazonen gainean, hemen elgarrekin juntatzen ditugu, hamar kapitulutan*” (41). “«Gorri» deitu ezkertiarrek «*Le Réveil basque*» astekari bat jalgi zuten 1886an. Louis Etcheverry Donazarreko deputatu-gai «xuriak» [=eskuindarrak] pentsatu zuen behar zela bisian-bis astekari girixtino bat ezarri. 1887ko martxoan ateratu zuen Eskualduna deitu astekaria”. Astekarian idazten zutenen izenak aipatzen ditu Lafittek. Idazleak, nonbait, hiru errient ziren, hamaika apez, hamalau jaun, eta bi fraile, biak lasalletarrak, Hazparden irakaskintzan zihardutenak, Frère Juvénal eta Frère Innocentius, azken hau gure Mixel Elissamburu (42).

Bere laburrean, hamar kapitulutan jositako liburuska dugu. Beroietan, tesi nahikoa sinplea azaltzen da. Mami hortaz jabetzeko, nahikoa da kapituluetako izenburuak irakurtzea:

---

datu interesgarri bat ematen du, *Frantziako hirur Errepubliken itxorioa laborzki* prestatu duen berrargitalpenean; honela dio: “Baionako *Musée Basque*-tik eskuratu dugun ale batean honako hau irakur daiteke: «E.S. Dogson, 9 March 1889»” (ik. Michel ELISSAMBURU, *Frantziako hirur...*, Klasikoak bild., 18, 22. orr., 2 oh.). Ohar horrek, beranduen, 1889ra botako luke liburuaren argitalpena.

Baina bada beste zerbait, zertzelada xumea izanik, arazo hau argitzeko lain dena. Berak prestatu duen liburuak zer dakarren adierazten duenean, zera esaten digu Gabriel Fraile-k: “Lehen zatia, *Zer izan diren...*-en aldaketarik gabeko berrargitalpena da; bigarrena, guk argitaratzeko hautatu duguna” (23. orr.), eta antzeko beste hau: “*Zer izan diren...*-en berrargitalpen hutsa den lehen zatia baztertzea erabaki dugu, honen eta bigarrenaren artean jarraikitasunik ikusten ez delako, bai eta pasarte asko, hitzez hitz batzuetan, errepikatzen direlako” (27. orr., 13. oh.). Orokorki begiraruta, arrazoina du Gabriel Fraile-k, berrargitalpen hutsa dela, esaten duenean. Baina, bada, gutxienez, aldaketatxo bat: har dezagun *Framazonak* 6. kapituluan: 1. edizioan (32. orr.) hau esaten da: “*Helduden urthean mende bat izanen du erreboluzioearen hasteak. Gero laster jinzen gure lehen errepublika*”. Esaldi honen orde, bigarren edizioan (1890koan) beste hau azaltzen da: “*Badu yadanik mende bat pasaturik erreboluzioearen hasteak. Gero laster jin zen...*”. Aldaketa guztiz esanguratsua. “*Helduden urthean mende bat*”, hau da, hurrengo urtean... Argi esaten du hor idazleak 1888an ari dela idazten. Ez dakigu ziur, baina litekeena da, 1888ko urte berean argitaratua izatea liburuska; atzera eginda, 1889an. Baina ez beranduago.

Bada beste gehiagorik ere. Inork ez du erreparatu Iñaki OLABEAGAREN pasarte bati, datak argitzeko nahikoa argitasunik duen pasarte honi: “*Avec notre autorisation, il fit imprimer, il y a 4 ans, il fit imprimer, en basque, une histoire très appréciée de la Grande Révolution de 1789, ainsi que des Républiques de 1848 et de 1870. Deux ans auparavant, nous lui avions permis de faire paraître aussi, toujours en basque, d’abord une brochure très goûtée sur la Franc-Maçonnerie et puis une autre sur les mœurs des Basques d’autrefois. Enfin en 1891 il a composé une vie abrégée du Bienheureux de la Salle et un petit Manuel de Piété, contenant une méditation pour chaque jour du mois.*” (op. cit., 144. orr.). “*Avec notre autorisation*”... horrek Anaiburu Orokorra bera edo Baionako Anai Probintziak adierazi nahi dute. Dena den, gauzak oso gertutik ezagutzen duen bat mintzo zaigu hor zehaztasun handiz. “*Il y a quatre ans*” (1895an Innocentiusen heriotze urtean dio hori, beraz “il y a quatre ans” horrek 1891era garamatza); “*deux ans auparavant*”, beraz, 1889an, “*Framazonak*”1 eta “*Lehenagoko Eskualdunak...*”.

(41) *Zer izan diren...*, 1. orr.

(42) Guzti honetat, ik. P. LAFITTE, *Mintzaira, aurpegia: GIZON!*, Aitzin-solasa, 23-42. orr.; idazleen izenak, 26. orr.

(1) Framazonak Eskual herriaren nahastera eta tzartzerat abian dire - Kalte handia egin dute Erlijioneari, Elizari, Sozietateari.

(2) Zer dire Framazonak? Framazonen istorioa iragan mendeetan.

(3) Framazonek egin zuten Franziako erreboluzione handia.

(4) Framazonek bankarrut egin zuten.

(5) Framazonak liberalak deitzen ziren - Errepublikak ez ditu atchiki bere agintzak.

(6) Laborantzak, Komerzioak eta Industriak sofritzen dute - Gobernamenduak ez ditu zergak gutitzen, baina bai emendatzen - Zeruko gobernioa Monarkia da, Ifernukoa da Errepublika - Errepublikak iraunen othe du luzaz Frantzian?

(7) Framazonen juramentu ikharagarriak - Guziak Elizaren kontra dire.

(8) Framazonek badituzte hirur chede: lehena orotan nagusi izatea; bigarrena, gauza guzien kambiatzea, Erligionea khenduz; gobernamendu guziak aurtirik; hirugarrena, Libertatearen, Igualtasunaren, Anayatasunaren izenean, zer nahi gizoneri eginaraztea.

(9) Framazonek bere lehen chedea dute jadanik bethea; bigarrena ere dute hasia eta sobera abantzatua; hirugarrena ere komplutuko dute Jainkoak ez badu, munduaren salbatzeko, alcharazten San Luis bat, Charlemagne berri bat, Garzia Moreno bat; akhabo orduan erligione guziak eta partikularzki egiazkoa.

(10) Mundua ongi eri da, eta guziz Franzia; Franzia historian zehar; Oraino ere alcha daiteke. Fidantzia izan behar dugu, baina 1.º Othoitz eta penitentzia egin dezagun; 2.º Onak elgarren alde para gaiten eta ez framazonekin; 3.º Gure haurrak giristinozki alcha ditzagun, gazeta tzarrak ez ditugu irakurtu behar, baina onak, eta bakharrrik hek kurajastatu.

“Aurkhigia”n edo aurkibidean hartutako bitxiak dituzue.

Zer esan argudio horiei buruz, nola esplikatu guzti hori? Borroka latzeko ingurugiroan bizi den lekuko bezala agertzen zaigu hor Mixel Elissamburu. Historia interpretazio guztiz alderatuaren lekuko, sinplifikazio baten lekuko: monarkia eta monarkizalea, xuxena da; errepublikanoa, tzarra, ifernukoa. Ikus dezakezuenez, Mixel Elissamburu politikaz edo ideologiaz xuri amorratua zen. Liburu ttipia eman bazigun ere, benetan irensteko gaitza, handiegia, eman zigun. Garai hartako giroan, “xuriak” —eta ez ziren, ez, gutxi, Frantziako eta Ifar Euskal Herriko gizartea guztiz erdibitua zegoen hemeretzigarren mende haren bukaeran— adoretu egiten zituzten honelako liburuek, “gorriak” aldiz errabiatu eta sutan jartzen.

Ideologiaz aparte, euskararen eta idazkeraren aldetik, liburutto hau ederra da: Elissambururen euskarak indarra du, pasionatu bat baita bera, argudioak

eman eta pilatu ahala berotu egiten da Mixel. Ezin zenezake berarekin ados egon, hortan zeuk ere galantak botako zenizkioke (Vinson-ek bota zizkion bezala (43), baina hala eta guztiz, erakargarri egiten zaizula esango nuke. Euskara hain naturala eta bizi-bizia baitarabil, freskotasunez beteriko euskara (44).

## 2. Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepubliken ichtorioa laburzki

200 orrialdeko liburua. *“Baionan, Lasserre baithan imprimatua. 1890”* (45).

Lehenengo zatia *“Framazonak”* liburu ttipiaren errepika da, horregatik “bigarren edizioa”. Ondoren, *“Frantziako erreboluzioaren eta haren Errepublikaren istorioa laburzki bai eta zombait hitz bigarren Errepublikaz; nola oraiko hirugarren huntaz, azken egun huntaraino”*. Hau da bigarren zatiaren izenburu osoa.

Erreboluzio handiari ematen dio Elissamburuk zatirik zabalena: 12 kapitulu, 75 orrialde. Ondoren, zatirik laburrena, *“Frantziako bigarren Errepublikaren istorio bitxia laburzki”*: 3 kapitulu, 13 orrialde. Eta azkenik, *“Fran-*

---

(43) Julien VINSON, *Essai...*, 410. orr.: *“Réimpression d'articles publiés dans le journal l'Eskualduna. L'auteur y répète toutes les niaiseries qui traînent dans certains journaux, et montre une singulière ignorance de son sujet. Chemin faisant, il énonce des aphorismes comme les suivants: «Tous les gens canailles sont républicains - la Monarchie est le Gouvernement du Ciel; la République celui de l'Enfer - la République peut-elle durer longtemps en France?»”*.

(44) ik. P. LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, 206. orr.: *“Frère Elissamburuk egun guzietako eskuara zerabilan; ez zuen hainbat apaintzen; ahotik bezala ateratzen zitzaion lumatik, bero-beroa, bere hartan eta elder-ziliportekin. Grazia guti zuen bainan zer indarra!”*

*Gaztigatzeko karrari behar balinbazaio behatu amodioaren negurtzeko, hitz dautzuet maiteko zituztela framazonak eta errepublikanoak: zangopean derabilzka, lehertzen ditu, hil-eta ere trufatzen eta musikatzen, erkaitza eta mesprexua merke...”*

Ik. Luis VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, col. Larrun, I, Sendo, Bilbao, 1961: *“No hay que decir que el autor se manifiesta decidido antirrepublicano. Escribe con pasión, rabia y chispa, con mucha viveza, claridad y flexibilidad, y es un verdadero placer su lectura”* (178. orr.).

*“Sobre todo en los escritos polémicos, en que entra de por medio el tema religioso y político, destila sangre, rompe y rasga por doquier. Allí se nos descubre por entero el alma candorosa del autor con sus amores y odios, un poco absolutos, primitivos y demasiado simples tal vez. Emplea la jerga del pueblo, vivo y movido, poco elaborado, pero espontáneo y fresco”* (179. orr.).

Arlo berean, beste batzuen iritzia irakurri nahi dutenek, badute nora jo: Lino AKESOLO, in *Klasikoak bild.*, 18, 14. orr. (... *Mutila dugu bera erepublikatar nauzienen zapi zikinak eguzkitara ateratzen...*); Luis MICHELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, col. Biblioteca Vasca, n. 7. Minotauro, Madrid, 1960, 141. orr. (*“Fue un polemista sañudo que no tuvo grandes contemplaciones con sus enemigos los radicales, vivos o difuntos, y a quien el estado de permanente indignación en que vivía prestó a veces tonos de auténtica elocuencia”*).

(45) Ik. gaur eguneko birrargitalpen bat in Michel ELISSAMBURU, *Frantziako hirur Errepublikaren istorioa laburzki*, *Klasikoak bild.*, 18gna., Prestatzailea: Gabriel FRAILE, Euskal Editoreen Elkarte / Erein, 1988, 176 orr. (1890eko edizioko bigarren zatia bakarrik argitaratzen du).

*tziaiko hirugarren Errepublikaren itxorioa erdia irri egingarria eta erdia serioa*”: 8 kapitulu, 41 orrialde.

Liburu hau irakurtzean, argi eta garbi ikusten da gure Mixel Elissamburu ez dela historigilea. Xurien ideologiaren hotsegile eta mezulari deituko nioke (46). Mixelen liburu honetan, nabari azaltzen da zer dagoen jokuan: elkartu ezin diren bi ikuspegi, bata bestearen aurrean, bi armada bekoz-beko egongo balira bezala, ezin elkarturiko bi konzepzio, bi pentsamolde, bi “civitas”. Elisamburu monarkizale sutsu agertzen zaigu. Historiaren filosofia eskuindar baino eskuindarragoa du. Idazten ari den une berean, berak hain maite duen eskolaren alorra guttiz pertsegitu eta hondatua ikusten du legeen eta gobernuaren aldetik. Nola bada gehiegi harritu, alor horretan beltzak gertutik ikusi eta pairatu ondoren, Elissamburu kristonak botatzen ikustean? (47).

Kontatzen digun historia alorrean arbuigarri gertatzen bada (“panfletario” hitza ez litzaioke oso desegoki egokituko), badu interesik, eta ez gutxi, pentsamolde baten lekuko dugunez. “*Zezenak errepublikan*”, eta “*Mintzaira, aurpegia: gizon!*” (48). Jean Hiriart-Urruty-ren liburuak irakurri dituenak badaki, bai, pentsamolde horren berri eta antzeko estiloaren berri, “*literatur genero*” oso erabilia izan baitzen honako hau Ifar Euskal Herrian XIX. mendean.

(46) Badakigu Frantziako historiari buruzko liburuen irakurle porrokatua zela (ik. in OLABEAGA, *op. cit.*, 150. orr.) eta zernolako iturrietan asetzen zuen bere jakin-mina.

(47) Elissambururen politika-ikuspegiaren ingurugiroa eta aztarnak nolabait argitzen saiatu direnen artean, ik. Ibon SARASOLA, *Euskal Literaturaren historia*, Hastapenak, 9, Lur, Donostia, 1971, 41-45. orr.; Piarres LAFITTE, “*Eskualduna*” kazetari buruz idatzi duenean (“*Mintzaira, aurpegia, GIZON*”) liburuari eskaini dion aitzin-solasean, 23-41. orr.; Gabriel FRAILE, in Michel ELISSANBURU, *Frantziako hirur Errepublikaren itxorioa laburzki*, 22-24. orr.

Giro horretaz astiroago sakondu eta jabetzeko, ik. Joseba INTXAUSTI, *Iraultzaren hildotik*, 1972. Guztiz interesgarria da liburu hau, Elissambururen eta beste zenbaiten izkribuak “*historiaren kontraispiluan ikus*” ahal izateko (10. orr.) - “*Denboraldi jakin bateko euskal kondairaren testoiinguru zabala ematen du, premiazkoa bait da gure historia ulertu nahi duenarentzat Europaren zein Europatan bizi izan garen jakitea*” (*ibid.*, 10-11. orr.).

Ik. *L'enseignement catholique en France aux XIX<sup>e</sup> et XX<sup>e</sup> siècles*, sous la direction de Gérard CHOLVY et Nadien-Josette CHALINE, col. Histoire religieuse de la France, n. 8, Éd. du Cerf, Paris, 1995, 294. orr.

Ik. Georges RIGAULT, *Histoire Générale...*, VII. t.: *La fin du XIX<sup>e</sup> siècle. Travaux et luttes des lasalliens en France*, 173-515. orr., batez ere 173-265. orr. Baita ere, Georges RIGAULT, *Les temps de la “Sécularisation”. 1904-1914*, col. Études Lasalliens, n. 1, Maison Généralice FSC, Rome, 207 orr.: 11-22. orr. batez ere.

Ik. Francis DEWITTE, f.s.c., *La législation scolaire sur l'enseignement primaire en France au XIX<sup>e</sup> siècle (simple rapel chronologique)*, in *Les temps de la “sécularisation”. 1904-1914. Notes et réflexions*, col. Études Lasalliens, n. 2, Maison Généralice FSC, Rome, 1991, 56-62. orr.

Ik. Pedro María GIL, in *Les temps de la “Sécularisation”... Notes...: La signification de Rigault 10 dans l'ensemble de l'histoire des Frères des Ecoles Chrétiennes*, 178-204 orr.; Pedro María GIL, *Tres siglos de identidad lasaliana. La relación misión-espiritualidad a lo largo de la historia* FSC, col. Études Lasalliens, n.4, Maison Généralice FSC, Roma, 1994, batez ere 63-221 orr.

(48) Ik. 2. eta 3. oh.



### 3. Lehenagoko eskualdunak zer ziren

*Bayonan, Lasserre, Apezpikutegiko imprimatzaile baithan, Gambettako karrikan, 20, 1889* (49).

VII+157 orrialdeko liburua. Hor argitara ematen dituen kapitulu “*gehienak agertu dire Eskualduna izena duen berrikarian*” (50).

“*Huna liburu bat atseginekin eta probetxurekin irakurt dezakezuna*” (51), dio Elissamburuk. Zergatik? Gai asko ikuitzen dituelako atsegina hartuko du irakurleak. Eta probetxuzkoa izango zaio “*Eskual-Herriko usaiak zer ziren orai duela hirur hogoi urthe*” (52) ikasiko dituelako (barne-izenburu honek argiago jartzen du, beharbada, liburuaren mamia).

Hori aurkezteko, kokaleku bat bilatu du: “*laborari etxe handi bat, Karakoetxea deitzen zutena*”, “*toki aski gora batean*”, “*Baxe-Nabarreko herri ederrrenarik batean*” (53). Berehala, pertsonaia biziak: “*atso zahar bat, azkarra, fierra, zankharra, zoina deitzen baitzen Xobadin*” (54). “*Dendari bat, Kattalin deitzen zena*” (55). Eta jarraian, kapituluz kapitulu, pertsonaia galeria bat aurkezten digu Elissamburuk: lanean, solasean, barnean daramatena aho betean hustutzen, bakoitzak dituen bizikizun, asmo eta pentsamoldeen berri emanez; beraien bitartez jakin araziko digu Elissamburuk ohitura franko, mila historia eta kontakizun, bitxikeria pila barne. “*Eskualdunen xinpletasuna beren beztimendetan*” (56), “*Familia laborariak*” (57), “*Artho xuritzea*” (58), “*Erlande Oihanzaina*” (59) doktor sabanta iduri, “*Ardiek nola erraten dituzten Ama Birjinaren litaniak*” (60), (...), “*Graziosa eta Manana*” (61), (...), “*Pilota, dantza jauziak, ttanta Maña eta dantza khorda*” (62), “*Xitaxaina, aztia*” (63), “*Sorginez*” (64)...

Hemen nolabait Elissamburuk pentagrama berria estreinatu du: doinu gozagoa atera zaio: “*cuadro de costumbres*” dei genezake, oraindik hobeto agian

---

(49) Ik. gaur eguneko birrargitalpen bat in Michel ELISSAMBURU, *Lehenagoko...*, Klasiakoak bild., 58gna, Prestatzaileak: Asier TREKU eta Iñaki NAZABAL, Euskal Editoreen Elkarteak / Ibaizabal, Bilbo, 1993, XIX + 163 orr.

(50) Ik. *Lehenagoko...*, 2. orr., 12. oh. (Klasikoak bildumaren arabera).

(51) *Ibid.*, 1. orr.

(52) *Ibid.*, 7. orr.

(53) *Ibid.*, 7. orr.

(54) *Ibid.*, 9. orr.

(55) *Ibid.*, 10. orr.

(56) *Ibid.*, 23. orr.

(57) *Ibid.*, 30. orr.

(58) *Ibid.*, 36. orr.

(59) *Ibid.*, 42. orr.

(60) *Ibid.*, 50. orr.

(61) *Ibid.*, 74. orr.

(62) *Ibid.*, 98. orr.

(63) *Ibid.*, 112. orr.

(64) *Ibid.*, 132. orr.

“cuadro de costumbres moralizataile”. Ezin baitio Mixelek xede moralizataileari uko egiterik: urte askotxo baitaramatza jadanik eskol-lanetan, irakasle-hezitzaile-katekista ihardunetan, ikuspegi hori bazterrean uzteko. “*Lehenagoko Eskualdunac ezagut araziz, ez dut bertzerik xerkhatzen baizik ene denborakoak izan ditene heien atzinekoak bezala*” (65). Eta hori dela eta, “*arcadia felix*” baitizan ager arazten du antzinako Euskal Herria.

Benetan liburu interesgarria. Baita Hazparneko eskolan irakurgai-liburu eran erabiltzeko ere. Erabili ote zuten?

#### 4. Joannes Batista dohatsuaren bizia

*Baionan, Lasserre baithan imprimatua, 1891.*

XI+193 orrialde. Parada ederra eman zion Mixeli La Salleko Joan Bautista dohatsu aitortzeak bere Anaidiaren fundatzailearen bizia idazteko. 1888an aitortu zuen dohatsu Leon XIII Aita Santuak, eta handik bi urtetara atera zen La Salle-ren bizi hau euskaraz.

25 kapitulu ditu liburu honek, gehi aita Arbelbide Hazparneko Misionesten Buruzagiaren baimena, eta Prefazio bat. Liburuaren barne-egitura honelakoa da: 16 kapituluetan La Sallekoaren bizia kontatzen du; 17. eta 18. kapituluek “*La Sallek establitu duen kongregazione*”az dihardu eta haren espiritualitatea argitzen du; 19.ean “*eliza nola jokhatzen den Yainkoaren zerbitzari baten sainduen herronkan ezartzeko*” argitzen du; 20-21-22.ean La Sallek egindako mirakuluetaz ari da; 23-24. kapituluak La Sallek eraikitako kongregazionearen historia kontatzen du. Hor estadistika bat ezartzen digu (ik. 176. orr.: non dau den Frerak, zenbat diren, zenbat etxetan banaturik, zenbat eskolier beren eskoletan). Liburuaren amaieran, “*Yoannes Batista Sala dohatsuari*” kantika: errepika eta zortzi bertsu, Mixel Elissamburuk berak asmatua.

Azpimarraketa pare bat besterik ez dizkiot egingo liburu honi: a) “*gure herritar baten bizia*” azaltzen da han eta hemen (66); denek zekiten La Salleko Joan Bautista Reims-eko semea zela; baina baziren haren arbasoak Pirinio aldetara ekartzen zituztenak: zenbaitek Katalunya aldetik zetorrela, zioten; beste zenbaitek Ziburun zituela bere erroak. Joan den mendearen bukaeran eritzi horien inguruan hitz dexente bota ziren. Gaur funtsik gabekoa bezala ikusten da teoria hori, eta erabat baztertua geratu da. b) Gure Anaidian balio berezi bat du biografia honek: La Salleren *euskarazko biografia primissima* delako.

(65) *Ibid.*, 2. orr.

(66) *Sakelako...*, ik. V. eta IX. orr.

## 5. Sakelako liburuchka edo giristino guzientzat on den esku liburu ttipia

*Baionan, L. Lasserre baithan imprimatua, 1982, 256 orr.*

“*Un petit Manuel de Piété*” bezala aipatzen dute Fr. Innocentius-en gainean lasalletarrek idatzi zuten Notice Nécrologique-an (67). Zentzu zabalean hartzen bada, onar liteke Lafitte-k, Nikolas Alzola-k, aita Villasante-k dioten hura: “*il y a aussi de lui... un livre de messe*” (68), “*mezatarako liburu bat idatzi zun*” (69) edo “*compuso también un libro de misa*” (70). Askoz hobeto legokioke, liburutxo honi, Gabriel Frailek erabili duen “*deboziozko esku-liburu*” izena (71) (espainieraz tradizio hain zabala izan duen “*devocionario*” izenaren antzera). Arbelbidek, liburuska berari buruz idatzitako baimen-gutunean dioenez, atsegin haundiz deituko luke “*euskaldunaren brebiariora*” (72).

Elissamburuk berak komentatzen du zertaz dabilen hor: “*Liburutto huntan, mezakako othoitzak, egungo eskuara klar eta chinplenean dira (...)* Aste guziez kofesatu nahiko denak hatzemanen du liburu ttipi hortan berean kofesione on baten egiteko model erretech (...) Hartan ikhusten da gisa berean (...) nola probetchoski (...) egin daiteken (...) khurutzearen bidea (...) Ilhabetean egun den bezenbat meditazione, bai eta bertze batzu gizonaren lau azken finen gainean, berdin han aurkhitzen dire (...) Azkenik, urthe guzieren erran daitezken (...) othoitz, salmo, hymno eta bertze khantu baten liburu ttipiak baditu” (73).

Bukatzeko esan behar da, lehenengo bi zatiak, hau da, othoitzak / meza / debozioak (1-69 orr.) eta gogoetak (69-186 orr.) euskaraz eskaintzen dituela.

(67) Ik. Iñaki OLABEAGA, *Michel Elizanburu...*, 144. or.: “*Enfin en 1891 il a composé une vie abrégée du Bienheureux de la Salle et un petit Manuel de Piété, contenant une méditation pour chaque jour du mois*”. Argi dago OLABEAGAK Elissambururen biografia “luzea” erabili zuela, ez Parisen ofizialki eskaini ziotena, honako hau bidali zitzaiena baina askoz motzagoa eta kimatuagoa (biografia “motz” hori in *Notices Nécrologiques trimestrielles*, n.º 467 (Janvier, février, mars 1895), Paris (rue Oudinot), 1895, 6-11 orr.). Anai Jean Olhagaray-ren gutun batek egiaztatzen du bazela biografia “luze” bat: “*En fouillant les Archives de la maison [Maison Aguerria, Maule] je viens de retrouver une copie de la Notice nécrologique du ch. fr. Innocentius (sic), avec force détails comme on devait les faire autrefois, quite à supprimer le cas échéant. J’ai le plaisir de vous l’envoyer afin qu’elle puisse vous servir pour préparer votre conférence.*” (Fr. Jean, Mauléon le 28 Janvier 1958, Anai Iñaki Olabeagari). Ez dut inon aurkitu Olabeagak bere hitzaldian erabilitako biografia “luze” hori. Pena litzateke ale bakar hori erabat galtzea!

(68) P. LAFITTE, *Le Basque et la littérature d’expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Baiona, 1942, 66-67. orr.

(69) “*Nere Anai ta adiskide Balentin Berriotxoak dioenez: «Mezatarako liburu bat idatzu zun...»*, in OLABEAGA, *op. cit.*, 144. orr.; ik. in LIZUNDIA [= Nikolas ALZOLA], *Páginas históricas...* Ik. gorago, 34. oh.

(70) Luis VILLASANTE, *op. cit.*, 179. orr.

(71) Michel ELISSAMBURU, *Frantziako hirur Errepubliken...* 21. orr.

(72) “*Zer da ezen horrelako Esku-Liburu girichtino Eskualdunarentzat? Zer ere baita Apezarentzat Brebiariora, eta gauza berbera. Erran nahi baita Eskualdunak hor aurkhituren dituela othoitzeko behar dituen argi eta laguntza gehienak; eta hortakotz zuzenez deritzateke Eskualdunaren Brebiariora*”. [II]. orr.

(73) *Sakelako...*, Prefazioa, V-VI. orr.

Azken zatia, aldiz, zenbait otoitz / salmo / hymno / bertze khantu, latinez bazarrik ematen ditu.

Liburutxo honi buruz idatzi duten zenbaitek ez dute esku artean erabili, beraz, zera diotenean: “*Sakelako liburuxka argitaratu eban; ba ditu bertan olerki goxoak*”; edo “*olerkari ere ba-genuen Anai Inozentio... Sakelako liburuxkan ba-ditu, prosaz gain, olerkitxoak ere, gozo ta atseginez moldatuak*” (Onaindiak) (74), edo Nikolas Alzolak berak: “*No sé cuáles serán de Anai Inozentio los cánticos que figuran en el Sakelako Liburuchka*” (75), edo Auñamendi Enciclopedia-n (76): “*A los 66 años publica Sakelako Liburuchka (Hay poesías además de la prosa)*”.

## 6. Bertsokak edo olerkiak

Lafitteri (77), batez ere, zor diogu, Elissambururen arlo hau pittin bat argitu izana, eta iturri horretara jo dute gero Elissambururi buruz idatzi dutenek.

Hau dio Lafittek: “*Liburuez bertzalde Frère Innocentiusek bertsu batzu egin zituen, ez bakarrik bere elizako liburuan ezarri kantikak, baina bertze zorbait ere. Hain xuxen eskuratu zaizku hiru kantu beren musikarekin «Herrian» ager-araziko ditugunak. Hiruak 1891koak dira: Toxa, Zinta gorria eta Ameriketara*”. Dassance-ek honela aipatzen ditu abesti horiek: “*Ameriketara noha*”, “*Toxa*”, “*Zeta-zinta gorria*”(78). Agerrarazi ote zituen Lafittek HERRIAN kantu horiek? Agian bai, baina nik ez ditut ezagutzen oraindik.

“Bere elizako liburuan ezarri kantikak”, zioen Lafittek arestian aipatutako pasartean. Dassance-ek, Lafitteren eskutik, “*Hel gaiten guziak, hel Beletelemarat*” kantikaren izenburua eman zuen (79). “Bere elizako liburuan” hori, zilegi beki berrito azpimarratzea, EZ da “Sakelako liburuchka”, esku-liburu ttipi honetan ez baitira azaltzen latinezko himnoak baizik, Elizak liturgian erabilikoak, hain zuzen! (hala nola, *Lucis Creator optime, Alma Redemptoris Mater...* eta antzekoak).

(74) Aita ONAINDIA, *Milla Euskal-Olerki Eder*, Karmeldar Idaztiak, Larre-Amorebieta, 1954, I. t., 458. orr.; Santiago ONAINDIA, *Euskal Literatura*, 2. t. (XIX mendea), Etor, Bilbo, 1973, 181. orr.

(75) H.V.B., *Elissamburu el fraile*, BRSVAP, 24(1968) 109. orr.

(76) s.v. “Michel Elissamburu”, in *EGIPV*, B, I: Literatura, Auñamendi, Donostia, 1969, 685-686. orr.

(77) HERRIA, 1967 (Abend. 14, 5. orr.); ik. P. LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, 206. orr.; Anai Nikolas ALZOLAK, bere “*Elissamburu el fraile*”-n dioenez, pozez irakurri zuen “noticia bibliográfica inozentziana importante” hori, bazituela zituela, alegia, Innocentiusek liburuez bertzalde bertsu batzuk: ik. BRSVAP 24 (1968) 109. orr.

(78) Louis DASSANCE, *op. cit.*, 287. orr., 12. oh., ohar osoari honelako sarrera egiten diolarik: “*Voici une note abrégé sur le frère Innocentius et son oeuvre que nous devons à l’obligance de M. le chanoine Pierre Lafitte*”.

(79) Louis DASSANCE, *ibid.*

Zein da, bada, “*elizako liburu*” hori “Sakelako liburucha” ez bada? Galdera berdina egiten zion bere buruari Anai Nikolas Alzolak (80), eta, argibide berrien ezean, berak egin zituen hipotesiez aparte, ezer gutxi esaterik dago. Ziur asko, Lafittek Hazparneko ikasleentzako argitaratu zituzten “*Recueil de chants...*” horietakoren bat zuen buruan hori idatzi zuenean. Vinson-ek 1893ko argitalpen bat ezagutu zuen (81). Nikolas Alzolak beste bi argitalpen aipatzen ditu, 1900koa eta bestea 1892koa (baina garbi dago azken hau oker dagoela, Sakelako liburuchkari buruz ari baita hor (82)). Dena den, “*Recueil*” horietako kantika bat bakarrik ezartzen zaio zuzenki Elissambururi, dirudienez: “*Hel gaiten*” izenburukoa, hain zuzen (83); Lafittek, hala ere, pluralean aipatzen ditu (“bere elizako liburuan ezarri kantikak”, baina ez du horretaz argibide sakonagorik ematen).

Honetaz aparte, Elissamburu berarena dirudi, *Joannes Batista dohatsuaren bizia* liburuan ematen den kantika (“*Yoannes Batista Sala dohatsuari*”), La Salleko Joan Bautistari zuzendurikoa, alegia (84).

## 7. Elissambururen euskara

Ahoan eta luman gorde zuen, lerdan eta bizi, euskara Mixel Elissamburuk. Bere bihotz-taupadak euskaraz emanaz sentitzen zituen... Horra zer zioen: “*Es-kuara, erran nahi da, gure aitaamen besoetan lehen lehenik ikhasi dugun mintzair e ztia eta ederra...*” (85). Elkarrekiko elikatze prozesu miresgarri izan zuten hortan, bai Mixelek, bai Harparnek: Oso gazte zelarik, euskaraz ondo zekiellako bidali zuten Anaiburuek Hazparnera; eta Villasanteren esanetan, “*euskara atxiki duten herrietan tarrotuena segurik*” (86) zen Hazparneko herri hark euskalduntasun horri giro aparta eman zion, baita euskara landu eta bideratzeko aukerak eta eskakizun zorrotzak ere. Jator jokatu zen Elissamburuk,

(80) Ik. H.V.B., *Elissamburu el fraile*, 109. orr.

(81) Julien VINSON, *op. cit.* -*Additions et corrections*, Bilbao, t. 1\*\*, 656 orr.: *RECUEIL de chants religieux latins, basques, français, espagnol, à l'usage des élèves de l'école chrétienne de Hasparren, Bayonne, impr. Lasserre, 1893. Pet. in-8 - 295 p. Les chants basques occupent les pages 37-175, 289-292.*

(82) H.V.B., *Notas de bibliografía vasca. “Kantika eskuarak” de Hasparren: 1900: “En las páginas 35-156 del Recueil de Chants Religieux Latins, Basques, Français, Espagnols à l'usage des élèves de l'École Chrétienne de Hasparren, Bayonne, Imprimerie-Librairie Lasserre, rue Gambetta, 20. 1900. Se incluyen noventa y tres cantos en vascuence en la sección titulada «Kantika Eskuarak», cuyos títulos son los siguientes...”*: BRSVAP 25 (1969) 590-592. orr.

(83) Onaindiak dakarren bertsioa (in *Milla Euskal-Olerki Eder*, I. t., 458. orr.) eta 1900eko “*Recueil de chants...*”-ek dakarrena ez dira guztiz berdinak.

(84) Ik. Anai Martin Jose LASA, *Salleko Joan Bautistari goratzarreak euskaraz (II)*, UNÁ-NIMES aldizk., 1979 (abend.), 109-119. orr., batez ere 113. orrialdean diodana.

(85) *Frantziako hirur Errepubliken...*, 35. orr.

(86) Ik. *Euskera*, XXII (2. aldia-1977) 323. orr.

ez zion gibela eman erronkari. Villasante beraren iritzian, “*ez da mirestekoa hainbeste idazle euskararen amodioan sutuak atera baditu*” (87).

Berak beste norbaiti buruz (Arbelbideri buruz ote?) esan zuen berbera errepika genezake Michel Elissambururi buruz: “*Eskuara, gure lenguaya ederra, osoki maite zuelakotz eta hura luzaz kontserba dadin gure artean nahi izan zuen*” “*liburutto hauek*” euskaraz idatzi eta zabaltzea (88).

Zein mailatako euskara erabili zuen Elissamburuk?

Beharbada, *Sakelako liburuchka*-n dioen hura egokitzen zaie eman dizki-gun liburu guztiei: “*egungo eskuara klar eta chimplenean dira*” (89).

Hain euskal idazle aberatsa den Arbelbidek honelako iritzia eman zuen gertu-gertutik ezagutu zuen Anai Innocentiusi buruz: “*... il consacra les rares répités de sa maladie à composer d'excellentes brochures dans la langue basque, qu'il possédait admirablement*” (90). Ez da gutxi esatea, gero!

Gaurko egunetan, Elissambururen euskararen kalitateari buruz idatzi dutenek, ez dute halako euskara gorenaren mailan kokatzen, baina guztiek azpimarratzen dute bere euskara freskotasunez eta bizitasun erakargarri batez ornitua dagoela.

Hala nola, I. OLABEAGAK: “*Nere ustez ez da goi-gioienetakoa; ez zan iritxi bere lengusuaren mallara. Ala ere, urria bakarrik ez degu maitatzen; zillarra ere atsegiñ degu. Zillarrezkoa dala iduritzen zait gure Anaiaren Eusker...*”. Olabeagaren ikuspuntua euskararen garbitasun aldetik tajutua dago, batez ere; “*erdel itz asko... sarritan alperrik*” ikusten ditu erdal iturria duten liburuetan; baina “*luma arin, gozo ta gogatsu*”agoa, “*iztegi eta joskera jatorragoa, joritsuagoa*”, “*Lehenagoko eskualdunak...*” liburuan. “*Bere iztegia batzutan garbia ez izan arren, joskera bai jatorra dala, bizia, zolia!*” (91).

Koldo MITXELENak esaldi biribil horietako bat eman zuen: “*Merece una mención especial por muchas razones, ya que no por lo cuidado de su prosa, el hermano Inocencio, de las Escuelas Cristianas, en el siglo Michel Elissamburu...*”; zenbait pasartetan “*tonos de auténtica elocuencia*” somatzen dizkio (92).

(87) Ik. *Euskera*, XXII (2. aldia-1977) 323. orr.

(88) “*Ez dezaket akhaba prefazio hau, eskerrak bihurtu gabe hemen, bihotzaren erditik, gure Eskual herriko aphez guziz argitu, izpiritu zorrotz eta chuchenena duen bati, nahiz ez dudan deusik erranen haren bertute eta kalitate ederrenez. Eskuara, gure lenguaya ederra, osoki maite duelakotz eta hura luzaz kontserba dadientzat gure artean, nahi izan du, Jaun errespetagarri harrek, liburutto hau eman izan dadin publikoaren eskuetarat, hala nola yadanik ager arazi baitu gorachago aiphatu liburuchka, Framazonak*”. In *Lehenagoko eskualdunak...*<sup>1</sup>, VIII. orr.

(89) IV. orr.

(90) ARBELBIDE, *op. cit.*, 53. orr.

(91) I. OLABEAGA, *op. cit.*, 148-150. orr.

(92) Luis MICHELENA, *Historia de la literatura vasca*, 141. orr.

LAFITTErenak dira hitz hauek: “*Frère Elissamburuk egun guzietako eskuara zerabilan; ez zuen hanbat aphaizten; ahotik bezala ateratzen zitzaion lumatik, bero-beroa, bere hats eta elder-ziliportekin. Grazia guti zuen bainan zer indarra!*” (93).

Luis VILLASANTEk balioztapen hau egin zion: “*Su estilo no está tan trabajado ni es tan solemne como el de un Arbelbide... Emplea el lenguaje del pueblo, vivo y movido, poco elaborado, pero espontáneo y fresco*” (94). Antzeko iritzi eta argudioak aurreratu zizkion Anai Olabeagari, hau Elissambururi buruzko hitzaldia prestatzen ari zen bitartean: “*Idazle bezela, zuen Frère Innocentius zer maillatan jarriko nuken jakin nahi zenuke. Ba, nere ustez, aundi oietakoa ezta izango, baiña bai ona, atsegiñez irakurtzen dana. Ba-du berez-kotasun eta jario gozoa, bere trakets-itxura ta guzti. Erdal itzak ugari ta ajol aundi gabe sartzen ditu. Ori ezin ukatu. Baiña idazle baten goibea ezte uste ortik neurtu bear danik (...). Gure frerak ango euskaldun erriarentzat idazten zuen eta ba-zekian angoen izkera bizkor, errez eta txairo erabiltzen (...) Ba-zekian bere uste ta burutapenak berotasunekin ta bizitasunekin ta libroki adierazten. Eztu, noski, Arbelbide baten izkera apaña, goitarra, solemnea, baiña bai arraiagoa ta biziagoa, naiz ta milla aldiz gutxiago landua izan*” (95).

Lino de AQUESOLOk, Villasanteren iritzi batzuei buruz ari zela, honako hau esan zuen Michel Elissambururi buruz: “*En todo caso, convendrá dejar en claro que el dicho Elissamburu no es especialmente descuidado en ese sentido*” (en el de “*escribir no teniendo «ningún empacho por echar mano de toda clase de palabras, sin cuidarse de su procedencia», como, según afirma el P. Villasante, lo hace Miguel Elissamburu*”) (96).

Orain ez asko, Klasikoak bildumarako Elissambururen liburu pare bat prestatu dituzten Gabriel FRAILE, Axier TREKU eta Iñaki NAZABAL (97)

(93) Piarres LAFITTE, *Euskal Literaturaz*, 206. orr.

(94) Luis VILLASANTE, *op. cit.*, 179. orr. Eta tesi edo iritzi nagusi eran idatzi du hor beste zerbaiz, Lino Akesolok irakurri zuenean nolabait sutan jar erazi zuen hura: “*«La historia...», del Hermano Inocencio, nos revela una característica de la literatura vascofrancesa (...) su practicidad, el ponerse al servicio de los usos y necesidades reales. Los vascofranceses saben mejor que nosotros que su lengua es lengua de hombres (...) que debe tratar temas humanos (...) empleando el lenguaje corriente y moliente de cada día (...). En cambio, en la parte española, sobre todo desde que el purismo ha prendido (...) se hace con un lenguaje tan alejado del real, que resulta incomprensible al público (...)*” (*ibid.*, 179 orr.).

(95) Luis VILLASANTEk Iñaki Olabeagari gutuna: 1958, Otsailaren 5eko gutuna, nik neuk gordea.

(96) Lino de AQUESOLO, *Una obra vasca ignorada: «Erle gobernatzalleen guidariya»*, BRSVAP, 20 (1964) 367-374 orr. Hemen jaso dudán aipamena bera, 367-388. orr. Hori irakurri ondoren idatzi zuen Nikolas ALZOLAK: “*Lino de Aquésolo apreció su vascuence en un artículo publicado en este BOLETIN, al matizar alguna opinión de Villasante referente a aspectos generales de la literatura escrita de allende el Bidasoa*” (ik. H.V.B., *Elissamburu el fraile*, 108. orr.: erref. osoa gorago, ik. 5. oh.)

(97) Gabriel FRAILE, in Michel ELISSAMBURU, *Frantziako hirur...*, Klasikoak bild.,

izan dira lehenak Elissambururen euskara aztertzen, bai euskalkien aldetik, bai hizkera beraren ezaugarri eta nolakotasun bereizle eta aipagarrien aldetik. Hor gehiago jorratu beharra dagoen arren, inork ez die meritu hori ukatuko. Gabriel FRAILEk iritzi hau eman du: “*Lapurteratik navarro-labourdin littéraire delakora emeki egin zen bilakaera honetatik at agertzen zaigu Elissamburu. Lapurterazko tradizioari amore eman behar bidean, behenafarreran oinarritutako hizkera bat erabiltzen du, aski finkatu gabea*” (98). Honako hau da, berriz, Axier Treku eta Iñaki NAZABALen iritzia: “*M. Elissamburu behenafartarra bazen ere, eta liburuko pertsonaiak Behenafarroan kokatzen baditu ere, liburu honi [«Lehenagoko eskualdunak...»] lapurteraz idatzi gura izan zuela erizten diogu, nahiz eta behin baino gehiagotan, bere jatorrizko euskalkira lerratu”... “*Liburua, arestian aipatu salbuespenak izan ezik, lapurteraz idatzia dago, ez ordea lapurtera klasikoan, herriko lapurtera erraz eta bizian baizik. Hemendik liburuan ohizko diren forma aldaera anitz*” (99).*

---

18gna, 25-27. orr.; Axier TREKU - Iñaki NAZABAL, in Michel ELISSAMBURU, *Lehenagoko...*, Klasikoak bild., 58gna, XI-XVIII. orr.

(98) *Op. cit.*, 25-26. orr.

(99) *Op. cit.*, XI-XII. orr.



## ELISSAMBURU, FRAMAZONAK ETA JUDUAK

1995-05-04

Gabriel Fraile

1789ko Iraultzaz geroztik, hasi zen hedatzen Europan zehar aldakuntza haize bat. Egundainoko ordena zaharra, *Ancien Régime* delakoa, kolokan eman zen. Ideia berriak ez ziren bat batean nagusitu, eta aitzinamendu bezanbat atzerakada gertatu zen XIX. mendean zehar. Aldakuntzak era askotakoak ziren: legeari buruzko berdintasuna onartzen zen, herriaren (gero eta zabalagoa zen herriaren) borondatea agintearen iturri goren jartzen, Estatu eta Elizaren arteko batasun baitezpadakoa hausten eta iritziak askatasunez adierazteko eta zabalteko eskubidea ematen, beste aldetik zientzia eta tresneriaren egundainoko aurrerakuntzak eguneroko bizimodua aldatzen zuelarik. Han-hemen —eta, 1848an adibidez, Europako herri askotan— helburu hauek zituzten iraultzen aurrean, edo ezteki eta astiro gobernu epelago batzuek hartzen zituzten norabide honetako neurrien aurrean, atzerazale askok berrizale gutzien arteko batasun bat ikusten zuten. Batasuna, asmoei dagokienez ez ezik, baita antolamenduari dagokienez ere. 1797an, *Mémoire pour servir à l'histoire du Jacobinisme* delako liburuan, Barruel apezak masoiei egotzen zien Iraultzaren errua. Gauza jakina da Iraultzaren buruzagien artean masoi asko zegoela, garai hartako goi-mailakoen eta jende ikasien artean usu zen bezala, eta zenbaiten ustez Luis XVI. erregea bera ere masoia zen (1). Beste aldetik, XIX. mendearen erdi aldean eman zen Italia batzearen aldeko burruka, Aita Sainduaren lurraldeen kaltean. Pío IX. eta Leon XIII.-ak asko aldiz gaitzetsi zuten Framazoneria (adi bedi, Framazoneria, *carbonari* direlakoak eta gainerako ezkutuko elkarte politikoak). Jazarpenik nagusia *Humanus genus* entziklika da, 1884ean argitaratua. Bertan salatzen zen bezala, Framazoneriaren azken xedea zen “Kristautasunak eraikiriko erlijio eta gizarte ordena guztia erroetaraino suntsitzea” (2).

Berdintasunaren asmoei jarraikiz, Europako anitz herritan juduei askatasuna eman zitzaion. Hauek, bizi ziren herrietako hiritartasun eskubidez gabetuak ziren, legez hetsirik zuten zenbait kargu eta lanbide, eta hortaz gizartearen aitzinatze bidea. Egiazko *ghetto*-etan bizi ez zirenak, legezko *ghetto* batzue-

---

(1) Jean palouk (*La Francmasonería*, Buenos Aires, 1975, 163. orr.) uste honen berri ematen du, nahiz eta, haren iritziz, aski frogatua ez izan.

(2) *Apud* J. A. Ferrer Benimeli, *El contubernio judeo-masónico-comunista*, Istmo, Madrid 1982, 44. orr.

tan aurkitzen ziren, beren jaioterrietan atzerritartzat hartuak zirelarik. Askatasunarekin, gero eta gehiago nabarmentzen ziren gizartean, askotan haienganako herrak, antzinatik bizirik zirautenak, areagotzen zirelarik (3). Nahiz eta 1789ko Iraultzan ez zuten parte handirik hartu, honen eragile nagusiak zirela, framazonekin batera, esaten hasten dira batzuk (4). Egia esan, bakar batzuk gorabehera (5), oso harreman gutxi zuten masoiekin. Hala ere, juduek betidanik elkarte ezkutu airea bazuten, batez ere herri xehearen begietan, eta honetaz baliatu ziren atzerazaleak, erlijioa eta ordura arte ezagutu zen gizartearen oinarriak desegiteko framazonekin elkar-lanean zihardutela hedatzeko. Juduen eta framazonen ametsezko azpijokoak salatzen zituzten liburuak ugalduz joan ziren XIX. mendean zehar, batez ere honen azken zatian. *Sion-go Jakintsuen Protokoloak* deitua —mundu osoaz jabetzeko “juduen buruzagien” alegiazko egitarau bat, xehetasun askorekin— famatuena da; XIX. mendearen azken urteetan paratu eta hurrengoaren hasieran lehen aldiz argitaratua, laster hizkuntza askotara itzuli eta eragin handia izan du, ia gure egunetaraino, honen sasikotasuna goiz aski frogatu bazen ere (6).

Euskal literaturan ere oihartzuna izan zuten ideia hauek, ez baita harritzekoa, apezek (edo elizkoiek) honetan izan duten nagusigoa kontuan hartzen badugu. Azken mende laurdenean batez ere nabari da gai hau euskal liburuetan, eta gehienbat Frantziako idazleenetan (7). Izan ere, III. Errepublikako gobernuek gizartea aldatzeari ekin zioten, oinarri laikoen gainean eraiki nahiz estatua; aipa dezagun, adibidez, Jules Ferry ministroaren hezkuntzaren erreberitzea, Elizari eskolaren nagusitasuna kentzen ziona. 1892an Frantziako katolikoek, Leon XIII. aita sainduaren aginduz, Errepublika (gobernu mota

(3) Ik. Léon Poliakov, *Historia del antisemitismo. La emancipación y la reacción racista*, Muchnik ed., Barcelona 1984, batez ere 47-93. orr, eta Michael Graetz, *Les Juifs en France au XIXe siècle. De la Révolution Française à l'Alliance israélite universelle*, Paris 1989.

(4) Ik. Edouard Drumont, *La France Juive* (bi lib.) Paris, Editions du Trident, 1986 [lehen edizioa: *La France juive, essai d'histoire contemporaine*, Paris 1886], I ii: “Le seul auquel la Révolution ait profité est le Juif. Tout vient du Juif, tout revient au Juif”, eta *ib.* II 320: “L’origine juive de la Maçonnerie est manifeste”.

(5) Baionan XVIII. mendez geroztik *La Zelée* deitu logia bazegoen, neurri handi batean juduek osatua (ik. Yan [-Jean Crouzet], *Bayonne entre l'équerre et le compas ou Histoire de la Franc-Maçonnerie de Bayonne et de la Côte Basque. Tome premier (des origines à 1815)*, Baiona 1982, 39. orr.) Baionako juduak, Bordelekoak bezala, sefardi jatorrikoak ziren, Portugaletik etorriak eta Santo Izpiritu auzoan kokatuak, ez arazorik gabe (ik. Henry Léon, *Histoire des Juifs de Bayonne*, Paris 1893). Osos bakan uzten zitzairen juduei logietan sartzen, Framazoneriaren hasiera hartan, baitezpadakoa baitzen gutiz gehienetan kristau sinestea.

(6) Ik. Norman Cohn, *El mito de la conspiración judía mundial*, Alianza ed., Madrid 1983).

(7) Hego Euskal Herrian ere zenbait aipamen aurki daiteke; honela, Andres Iturzaeta: “Bere [Frankmasoneriaren] asmua da Jaungoikoari zor jakon adorazioa eta agintaritasun egiazko guztia mundu onetatik guztiz kendu, eta euren lekuan Satanas edo Luzifer Jaungoikotzat guztiai euki eragin, eta deabruaren agindura guztioi bizi eragitea. Zeintzuk dira seta infernuko orren agintari nagusiak? Izan oi dira judeguak, erreñuetako naste, gorabera eta matxinaden bitartez egin izan diran munduko aberatsenak” (*Aita Gaspar Astete-eren Ikasbide Cristinaucoraren Azalduera Laburak*, Durango 1899, 213. orr.).

gisa) onartu bazuten ere (8) —*Ralliement* delakoa—, gerla bizian egon ziren urte hauetan Gobernu eta euskal elizgizonak, azken hauek *Eskualduna* berriketaria zutela ahots-zabaltzaile. Erepublikaren adiskiderik ere bazegoen Euskal Herrian (aipatu ditugun J. B. Elissamburu, Guilbeau, Salaberry kantu zahar biltzailea edo Vinson euskaltzalea, eta *Le Réveil Basque* astekaria) (9); hala ere, testuei bagagozkie, atzerazaleen nagusitasuna nabaria da. Framazonak eta juduak ardura agertarazten dituzte euskal idazleek beren lanetan; honela Zaldubyk:

“Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu,  
Guzien buruzagi horiek ditugu” (10),

edo bereziki J. Hiriart Urrutyk. Anitzen artean pasarte bat hautatu dugu, zeinetan Édouard Drumont antisemita famatuaren *La France Juive* liburua mi-respenaz aipatzen baitu:

“Juduak ditugula Frantzia nautsi: gu oro heien azpiko; beren eskuko dituztela kargu guziak, gako edo giltza eta gider guziak, eta oroz gainetik gako guzietan lehena: *dirua* [...]. Dirua beretuz geroz, nahi dutena egiten dutela gutaz. Lege tzar guziak heien *mutil* direla; eta gu heien esklabo [...]. Horra zer dion Édouard Drumont deitu jaun harek” (11).

Euskal idazleen artean gauza hauetaz gehien arranguratu agertzen zaiguna Michel Elissamburu da. Michel Elissamburu, *frère Innocentius* (haren erlijio izena), Nafarroa Behereko Heletan sortu zen 1826an. Mugazainen buru baten semea eta Jean Baptiste Elissambururen lehengusua zen. Baionako Salletarren ikastetxean bere ikasketak egin ondoan, ordena honetan sartzeko asmoa agertu zuen, eta Frantziako Tolosan prestatuz geroz, Akizera igorri zuten irakasle. Hazparneko ikastetxeko zuzendari ezarri zuten, oso gazterik (22 urte zituen), euskaldun bat behar baitzuten anartean zegoen erdaldunaren orde (12). Bertan eman zuen Elissamburuk bere bizi guztia, 1895ean hil zen arte. Asko nekarazten omen zuen irakasteko lanak, eta gogorxko izan ohi zen bere ikasleen aldera (13); gogokoago zuen dudarik gabe irakurri eta izkribatzea. 1889 eta 1892 artean bost liburu argitara eman zituen: *Lehenagoco eskualdunak zer zi-*

(8) Lavigerie kardinale baionesaren proposamena izan zen, bi urtez lehenago aurkeztua. Ik. J. Hiriart-Urruty “Lavigerie kardinalaren hiltzea” [1892], *Mintzaira, Aurpegia, Gizon!*, Oñati 1971, 53-56. orr.

(9) Ik. F. G. Larzabal “J. B. Elissamburu eta Oxalde, bi «gorri»”, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2, Bilbo, 1983, 323-338. orr, eta Manex Goihenetxe “Ipar Euskal Herria XIX. mendeko azken hamarkadetan” *Euskera* 1992, 17-29. orr. Orduko politika goiti-beheitiez, ik. Iñaki Caminoren Hiriart Urrutyren artikuluen bildumako hitzaurrea (*Gontzetarik jalgiaraziak*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia 1994) eta J. Intxausti, *Iraultzaren hildotik*, Oñati 1972.

(10) “Errepublikak”, *RIEV* 1909, 231.

(11) “Édouard Drumont” [1893], *op. cit.*, 59. orr.

(12) Ik. I. Olabeaga, “Michel Elizanburu, Anaia Inozentzio, Salletarra. Bere bizitza eta lanak”, *Egan* 1959 (5-6), 142-154. orr.

(13) P. Lafitte *Euskal literaturaz*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia 1990, 205. orr.

ren (Baiona, 1889) (14); *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan* (15), lehenago *Eskualduna* aldizkarian argitaraturiko artikuluen bilduma; *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki* (Baiona, 1890) (16), lehen zatia aurrekoaren berrargitaratze hutsa delarik; *Joannes Batista Dohatsuaren bizia* (Baiona, 1891), Salletarren fundatzaileari buruz, eta *Sakelako liburuxka edo girstino guzientzat on den esku liburu ttipia* (Baiona, 1892), debozioko esku-liburu bat.

Lehen aipaturikoa irudimen-lana da, alabaina irakasteko edo dotrina zuzena gogoratzeko helburua ezkutatu gabe. Bertan, Nafarroa Behereko familia bat ardatz harturik, bere haur denborako bizimodua, ohitura eta sinesteak erakusten dizkigu. Zorigaizki galtzen joan diren ustezko aztura garbi hauekz gainera (hala nola, jan-edanean neurri ona, jatzeko apaltasuna, gurasoei eta nagusiei begiramendua (17) eta, esan gabe doa, erlijioari atxikimendua) beste gai esko ukitzen ditu, hauen artean liburu tzarrak, euskaldun sailduak, sorginak eta, geroago ikusiko dugun bezala, zorioneko framazonak ere bai. Honetarako gehienbat elkarrizketaz baliatzen da, solasean ematen dituelarik, besteen artean, sinesgabe bat eta Salamancan ikasi zuen apez jakintsu bat, zeinak, eztabaidatzen den puntu bakoitzaren gainean, Elizaren dotrina ederki agertuko baitu, latin hitz dotorez bere erasia apainduz eta Eskolastikak irakatsitako bidez argudiatuz. Solasek bizitasuna eskas ez badute ere, eta gai aniztasunak liburuari interesa ematen badio ere (irakurleak ezinbesteko urruntzea begiratzen badu), ezin ukatu lanari egiantzekotasuna falta zaiola, Caton antzeko honek agertzen duen bizimodu hertsia ez baita ez sinesgarri ez behar bada jende gehienarentzat erakargarria (18).

*Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*, aurreko *Zer izan diren...*-ekin batera argitaratua, historia liburu bat da, lehen zatia bederen. Hau 1789ko Iraultzaren kondaira labur bat da, haren iturri nagusiak Taine eta Gabourd direla (19). Politikaren alorreko aldakuntzez gainera denbora nahasi haietako sa-

(14) Axier Treku eta Iñaki Nazabalen argitalpenetik (Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo 1993) aipatuko dugu hemen.

(15) Lekuik, datarik eta, gainerakoak bezala, Salletarrek honetaz duten debekua begiratu, egilearen izenik gabea. Vinson-en iritzi 1890koa bada ere, eskuratu dugun alean eroslearen izena eta erostean data irakur daitezke, lehen orrian: "E. S. Dodgson, 9 March 1889".

(16) Gure argitalpenetik (*Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia 1988) aipatuko dugu. Iraultzaren mendeurrena zela eta, *Eskualduna*-n artikulatu batzuk argitaratu zituen, gero liburu honetan bilduak. Ik. J. Haritschelhar, "Le centenaire de la Révolution française dans l'Eskualduna (1889-1895)" in J. B. Orpustan (ed.) *La Révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXe siècle*, Izpegi, Baigorri 1994, 205-216.

(17) Ikus, anai-arreben artean ere, hurrenkeraren arabera begiramendu-lege hertsia (32. orr.).

(18) Ik. Lafitte *op. cit.*, 206: "Eskualdun xaharren berriak [...] ez daukute den gutienik aintzineko mendetarar itzultzeko tirriarik phizten".

(19) Amédée Gabourd, *Histoire de France depuis les origines jusqu'à nous jours* (20 lib.) Paris 1862-1863; Hippolyte Taine, *Les origines de la France contemporaine* (4 lib.), Paris 1885 (Elissamburuk ezagut zezakeen argitalpena, geroago beste lau liburuki agertu ziren).

rraski eta gertakari lazgarrien berri ematen digu bereziki (20). Ohargarria da Luis XVI. erregeari eta haren familiari eskeintzen dien omenaldia, luzaz baitiharduka hauek pairaturiko atsekabeez eta heriotzeaz. Herriei historian zehar gertaturiko hondamendiak Jainkoaren gaztigutzat agertzen ditu:

“Bada Yainkoaren kolera erortzen denean nazione hobendun baten gainerat, norik erran dezake zonbat desmazia, zonbat atsegabe yinen zatzkon nazione hari” (21)

Eta adibide gisa Jerusalemen suntsitzea eta 1870ko Prusiarren kontrako gerla aipatzen ditu. Halaber Frantziako Iraultza:

“Frantzia bere ere, Yainkoaren nazione hautetsia, behar zen izan gaztigatua, guziz bere inpietatea zela kausa, gero, bere odolean garbiturik, sekula baino ederrago ager zadin Elizaren begietan” (22).

Erregea Jainkoak asmo jakin batekin hautatutako bitimatzat aurkezten du:

“Errege inozent batek behar zituen pagatu haren aitzinekoek egin hutsak eta krimak. Yainkoak bere yustiziaren apazegatzeko, biktima nota gabeak ditu hautatzen; hala nahi izan du haren Seme dibinoak, saildutasuna bera zenak, salba zezan mundu hobenez bethe hau” (23).

Eta Luis XVI.aren alderako hain atxikimendu berezia honegatik erakusten duela uste dugu. Izan ere, nahiz eta erregetiar den (24), aurrekoen alde okerrak eta estakuruak ez ditu ezkututzen (25); errege gilotinatua, aldiz, Jesukristorekin parekatzen du, mundua berrerosi duen Jainkoaren bildotsarekin. Munduko gertakari handietan Jainkoaren eskua ikusteko joera hau, juduen tradizioan ez ezik, kristauenean ere oso errotua dago Agustin Sainduaz geroztik (26); baina gai honi dagokionez Elissambururen iturri zuzenena Joseph de Maistre dela uste dugu. Izan ere, autore hau behin aipatzen du, nahiz eta, ohi bezala, liburuari buruzko argitasunik erantsi gabe:

“Arrazoinekin erran du autor handi batek (Joseph de Maistre) Erreboluzioa dela bere funtsez edo berenez debruzkoa” (27).

---

(20) Ik. I. Casenave, “Michel Elissamburu-ren *Frantziako hirur Errepublikan ixtorioa laburki* (1890)” in J. B. Orpustan, *op. cit.*, 205-216. orr. Iraultzaren gaineko zatiari dagokion artikulu honetan Elissambururen erretorikako baliabideez zenbait berri jakingarri ematen zaigu.

(21) 37. orr.

(22) 45. orr.

(23) 44. orr.

(24) “Jainkoaren gobernamendua dela Monarkia, erregetasuna” (*Zer izan diren...* 31. orr.).

(25) 44. orr.

(26) Ikus dezagun adibidez *Ciuitas Dei*, V lib., 19 kap.: “Etiam talibus [Neron bezalakoei] tamen dominandi potestas non datur nisi summi Dei prouidentia, quando res humanas iudicat talibus dominis dignas”.

(27) 64. orr. Cf. *Oeuvres choisies de Joseph de Maistre, IV tome, Considérations sur la France*, Paris, s.d., 47. orr.: “Il y a dans la révolution française un caractère *satanique* qui la distingue de tout ce qu'on a vu”.

De Maistrek garrantzi handia ematen dio Jainkoaren probidentziari. Haren lanetan irakur dezakegu:

“S’il entrait dans les desseins de Dieu de nous révéler ses plans à l’égard de la révolution française comme l’arrêt d’un Parlement” (28),

edo:

“La Providence [...] donne aux nations, comme aux individus, les organes nécessaires à l’accomplissement de leur destination” (29).

Baina ideia bereziago batez ere agertzen zaizkigu gogaide Elissamburu eta De Maistre, alegia, sakrifizioarenaz. Ikus dezagun zer dioen azken honek:

“On peut la considérer [cette question] seulement avec son rapport avec le dogme universel, et aussi ancien que le monde, de la réversibilité des douleurs de l’innocence au profit des coupables [...] le christianisme est venu consacrer ce dogme, qui est infiniment naturel à l’homme, quoiqu’il paraisse difficile d’y arriver par le raisonnement. Ainsi, il peut y avoir eu dans le cœur de Louis XVI, dans celui de la céleste Elisabeth, tel mouvement, telle acceptation capable de sauver la France” (30),

Elissambururen lehen aipatu pasartea gogora dakarkiguna. Ez litzateke gehiegizkoa esatea, beraz, datuei dagokienez Gabourd eta Taineren lanetan oinarritu bada, pentsamenduari dagokionez De Maistrek izan duela eragina Elissambururen baitan.

Bigarren Errepublikaz mintzatzean, idazteko era nabarmenki aldatzen da. Gure autoreak lehena tragedia odoltsu moduan aurkeztu digun bezala, bigarrena ipuin irri egingarri moduan agertuko digu (31). Ez digu xehetasunik ematen orduko gertakari handiez, ez eta datarik edo eragile nagusien izenik; aski du Euskal Herrian egun haietan ikusi gertakari batzuk adieraztea; gertakari hauek bitxiak eta irriagarriak dira, eta haien bidez saiatzeko da Errepublika eta haren aldekoak umorez apaltzen irakurleen begietan.

Hirugarren zatian bere garaiko egoeraz mintzo da, III. Errepublikako gobernuek egin tzarkerien berri ematen digu, irakaskuntzan, Eliz-arazoetan, gizarateko ohiurretan, eta bestetan; luzaz diharduela masoiei buruz, eta juduei kapitulu oso bat eskaintzen. Bigarren Errepublikari buruzko zatian bezala, ez da honetan gertakari jakinez gauza handirik esaten, eta izen berezietatik bi bakarrik: Boulanger jeneralarena eta Gambettarena (azken honen judutasuna ai-

(28) *Op. cit.*, 13. orr.

(29) *Ib.* 21. orr.

(30) *Ib.* 33. orr.

(31) Honetan K. Marx-en nolabaiteko gogaidea da; ikus zer zioen honek 1848ko iraultzaz eta Luis Bonaparteren estatu-kolpeaz mintzo den liburuan: “Hegelek nonbait zioen, Historia unibertsaleko gertakari eta pertsonaia nagusiak birritan jazotzen omen direla. Baina zera eranstea ahantzi zitzaion: behin tragedia bezala eta bestean farsa bezala” (*Louis Bonaparteren “Brumaire”aren hamazortzia*, Lur, Donostia 1973, 8. orr.).

patu gabe), laidoztatzeko asmoan, eta haien politika-ekintza edo iritziak zehazki aditzera eman gabe.

Elissambururen idaz-tankera berezia da, eta nolabait erakargarria, gaur egun askorentzat irri egingarri den dotrina alde batera uzten badugu (hau ere, beste aldetik, aski interesgarria delarik). Eztabaidatzeko edo argudiatzeko baino salatu eta erasotzeko grina —baita etorri eta dohainak ere— bazuela dirudi. Ikus dezagun, adibidez, erlijio-askatasunaz mintzo denean:

“Framazonak sinhets arazi dute bazterretan erlisione guziak berdin direla egiak, edo berdin dudazkoak; beraz gure erlisione saindua dela opinionezko egiteko bat. Makhurkiago ez ditake arrazoina. Egundaino nehork ez du serioski erran plomuzko edo esteinuzko bost liberakoak balio duela zilharrezkoa. Bertzela dugu arrazoinatzen diogunean monera faltsoak balin badira, monera egiazkoa ere badela, ez laitekela bertzenaz monera faltsoak. Erraiten dugu oraino, arras ongi, monera egiazkoa dela bakharrik balio duena” (32).

Elissamburu, aro berriaren aurrean etengabeko suminduran bizi den batek bezala, etsaiei edozein bidez jazartzeko eginkizuna hartzen du bere gain, jakinik aldez aurretik harekin ados daudenei mintzo zaiela —edo gehienaz ere, bera baino epelxeagoei edo gaitzaren handitasuna noraino heltzen den ez dakitenei—. Ez du, beraz, denbora alferrik galtzen aipatu dugun baino argudio zorrotzagorik egiten. Haren jazarpena bizia da, gogorra eta, esan liteke, giza-legerik gabea, askotan gordinkerian ere eroriz. Hala nola, txakurren gernu egiteko leku bihurtzen duen Libertatearen Arbola (33), edo, Gambettaz ari delarik:

“Fite naiz ohartzen karrika [rue Gambetta] hetako erhausak berak baduela Gambetta urrin bat. Urrin hura da preseski nik hemen izendatuko ez dudana gauza baten berarena. Karrika hetarik igaitean, bakhotoxak bere sudurra tapa dezala!” (34).

Izan ere, egokitzen jotzen du erasteke modu gogor eta heraberik gabeko hau, beste batean pertsonaia baten bitartez adierazten duen bezala:

“Egungo egunean dira hatzematen izpiritu faltsu, hauntu eta bethi trebes phensatzen duten batzu, zoinen arabera aphezak, bai eta aphezpikuek berek, behar bailituzkete hartu balusezko eskularruak egiaren erraiteko, edo behar bailukete egia hura sukrestatu, eztiz pherekatu” (35).

Estiloaren gehiegikeria honetan bertan uste dugu, hala ere, haren erakar-garririk handienetako bat datzala, hain zuzen (36).

(32) *Frantziako...* 143. orr.

(33) *Ib.* 123-125. orr.

(34) *Ib.* 130-131. orr.

(35) *Lehenagoko...* 83. orr.

(36) Ilk. K. Mitxelena, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid 1960, 141. orr:

“a quien el estado de permanente indignación en que vivía prestó a veces tonos de auténtica elocuencia”.

## FRAMAZONAK, DEABRUAREN GIZONAK

Esan dugun bezala, framazoneria zen egiazki Elissambururen mamu beltza, gutxienez ehun urtez geroztik munduan gertatutako gaitz orenen hobenduna. Ez baita harritzekoa, zaku berean sartzen zituenaz geroz “Frantziako framazonak, Italiako ikhazkinak, Alemaniako argituak, Angleterrako radikoak, Espainiako comuneros edo parzudun deitzen direnak; bai eta horiekin guziekin, Ekosiako xebalierrak, Rose-Croix izena dutenak, Internazionalekoak, Pietistak, Nihilistak, Solidario, Fenian eta bertze ehun izenetakoak” (37), denek funtsean bat egiten dutelarik Elizako ordena ezberdinek egiten duten bezala (38). Egia zioen Elissamburuk, hein batez bederen, framazonei Elizaren alderako etsaigoa eta Errepublikaren aldekotasuna egozten zizkienean. Britainia Handian eta Ipar Amerikan ez bezala, herri katolikoetako framazonak XIX. mendean zehar —eta batez ere bigarren zatian— joan ziren aldaratzen Jainkoaren (Arkitekto Handiaren) baitezpadako sinestetik, gai hontaz iritzi askatasuna onartzen zelaririk (39). Framazon hauen artean bazegoen, protestante, judu, deista edo sinisgabekekin nahasteka, katoliko asko ere bai, ez haatik hertsienetariokoak (gogoan izan ditzagun Aita Sainduen gaitzespenak). Beste aldetik, lehenago Espainian eta Italian bezala, II. Inperioaldian Frantzia framazon logiek errepublikazalei biltzeko eta antolatzeko aterbea eskaintzen zieten (40); ez da beraz harritzekoa III. Errepublikako politikari asko, buruzagi nagusiak barne, moderatu ala erradikal, framazon izatea.

Elissambururentzat framazonak dira “debruzko gizonak, edo egiazki eta errealki deabruarenak” (41), esan nahi baita, ez xoilki Jainkoaren legearen kontra ari diren gizonak, eta hortaz deabruaren biderei lotzen zaizkionak, egiaz deabruarengandik beragandik eginkizun jakinak jasotzen dituztenak baizik; sorgin mota berritaz ere jotzen ditu (42). Hortaz ez da miresteko gauza deabrua bera framazonen bilkuretan noizpait agertzen bada:

---

(37) *Zer izan diren...* 39. orr. Pietistak luterarrengandik berezitako sekta bat zen, XVII. mendearen bukaeran sortua, gnostikoez bezala erlijioaren misterioen jakitea aditu bakar batzuen esku zegoela esaten zutenak. Argituena (XVIII. mendearen bigarren zatian, Alemanian, guziz Bavieran eragin handia izan zuena) mugimendu teosofiko bat zen, masoien antolakuntza nolabait berregiten zuena. *Comuneros*, Espainiako framazoneriaren zatiketa bat, 1820 inguruan sortua, Bravo, Padilla eta Maldonadoren matxinada aitzindari nahi zuena. “Eskoziako zaldunak” eta *Rose-Croix* ez ziren elkarsteak, framazonen arteko mailak baizik (bigarrena gorena). Gainerakoak ez zuten framazoneriarekin zerikusirik, zeharka baizik.

(38) *Ib.* 38. orr.

(39) 1877an Frantziako Oriente Handiak honela erabakitzen du (Palou, *op. cit.*, 237).

(40) Baionan, hala ere, II. Inperioaren urteetan framazoneria desagertu zen, eta Elissamburuk idazten zuen garaian ez zegoen oraino berreraikia (ik. Crouzet, *Bayonne entre l'équerre et le compas. Tome III (1852-1945)*, Baiona 1990, 30-47. orr.).

(41) *Frantziako...* 142. orr.

(42) *Lehenagoko...* 135. orr.



“Bultatto bat framazonak egonik Satanen aiduru, solasean, joaiten da zalhu, bai eta haren zerbitzari framazonak, edo egungo sorginak deithuren ditudanak” (43).

Framazoen azken xedea Antikristoaren erresumaren bideak apaintzea da:

“Framazonek aspaldi deliberatu edo arrastatu dute, beren artean, ez dela behar lurtean, hemendik harat, bi edo hirur monarka baizik, eta azkenean ez da beharko bat baizik. Hala nola Ante-Krist bakhar-bakharra izanen da azkenean nagusi munduan” (44).

Ustekari hau orduko zenbait liburu eta kazetak zabaltzen zuten, baina iturri nagusia Léo Taxil da. Hau (benetako izenez Gabriel Jogand Pagès) gaztedanik berri faltsu hedatzaile eta iruzur egile trebea zen; haren engainuetarik bat aipatzeko, jakintsu talde bat bildu zuen behin, Suizako Lemana aintziraren zolan erromatar hiri baten aztarnak aurkitzen zirela sinetsaraziz (45). Saiatu zen geogo literaturaren bidez dirua biltzen; erruz argitaratu zituen liburuak, *Apeza, tximino-ipurdia* edo *Jesuitaren semea* bezalako izenburuak zituztenak. 1885ean “argia ikusi” eta Elizaren alde eman zuen bere luma. Bera izan zen satanismoa framazoneriari lotu ziona:

“Framazoneria den bezalako agertuko da, Aita Sainduak eta apezkikuek adierazi bezala, hau da, funtsean eta egiaz deabruzko erakunde bat [...] ez da Satanasen kultua baizik” (46).

Irudimen handiko izkribatzaile hau ez zen bide erdian gelditzen. 1893an azaldu zuen Ipar Amerikako framazonen buruzagiak munduko hiriburu nagusienekin loturiko telefono-sare bat antolarazi zuela, konpainia honen “langileak” deabruak zirelarik (47). Azkenean, 1897an, Léo Taxilek hitzaldi batean gezurtatu zituen bere faltsukeria guztiak, bere irakurleen sineskortasunak egiten zion harridura lotsagabeki aitortuz (48).

Elissamburuk ez du ukatzen Taxili dion zorra. Bere iturrien artean Bresciani, Léo Taxil eta Paul Rosen aipatzen ditu (49), ohi duen bezala libururen izenik eman gabe; bigarrena eta hirugarrena autore bakar baten bi ezizen baizik ez direlarik (50). Lehenaz den bezanbatean, Antonio Bresciani idazle italiarra

(43) *Ib.* 145-146. orr.

(44) *Zer izan diren...* 49. orr.

(45) Ferrer Benimeli, *op. cit.*, 33. orr.

(46) *Les frères Trois Points, Révélations complètes sur la Franc-maçonnerie*, Paris, 1885 (apud Ferrer Benimeli, *op. cit.*, 47. orr.).

(47) COHN *op. cit.*, 48.

(48) Hitzaldi honen testua Ferrer Benimelik dakar, *op. cit.*, 90-123. orr.

(49) *Frantziako...* 161. orr.

(50) Paul Rosen izenaren azpian argitaratu zuen *Satan et Compagnie, Association universelle pour la destruction de l'ordre social. Révélations complètes de tous les secrets de la Franc-maçonnerie*, Paris 1888.

da, 1848an Italiako elkarte gordeei buruzko elaberri bat idatzi zuena (51); bertan agertzen diren gertakariak alegiazkoak dira, beraz.

Ez zuen Elissamburuk Taxilen gezurtamena ezagutzeko aukerarik izan; ez dugu uste, haatik, hau jakiteak framazonen asmo ikaragarrietan zuen sinesmen sendoa kolokan ezarriko zuenik.

## JUDUAK

Juduen alderako aiherkudearen historian bi mota berezi ditzakegu. Bata da zaharra, erlijioan oinarritzen dena; honen arabera, juduek erlijio bat osatzen dute, eta egozten zaien hobenik handiena (ez hala ere bakarra) herri Jainko-hiltzailea izatea da. Bestea, antisemitismo berria, arrazan oinarritua, XIX. mendean sortu zen ariotarren mitoari lotua eta XX.ean dakizkigun ondorio ikaragarriak izan zituen (52). Bi hauei munduko konspirazioari buruzko ustekeria gehi diezaiekegu, framazonen auziari lotua XIX. mendearen hasieran sortuz geroztik, eta lehenari bai bigarrenari ere atxikia ager daitekena.

Elissambururen baitan lehen motatik asko aurkitzen dugu, bigarrenetik ia deus ez, beste aldetik gogoko duen Drumont-en baitan ez bezala (53) (juduen itxuraren azalpenak (54), iraingarria eta erdeinuzkoa bada ere, ez dirudi arrazen arteko desberdintasunari buruzko ideia sakon batzuen ondorio denik). Gure autoren antisemitismoa kristautasunaren lehen denboretatik datorren tradizioan erroturik dago. Horrela, Jesu Kristoren hiltzailatzat salatzeaz gainera (55), ez ditu uzten aipatu gabe juduek Pazkoz egiten omen zituzten haur giristinoen gurutziltzatzeak, eta aspaldidanik leporatu izan zaizkien beste eraite errituak (56). Halaber, beste batean adierazten duen haurtzaroko oroitzapenak antzinako kutsua duela ezin uka daiteke:

“Ene haur denboran, ikhusten ginituen, Santo Izpiritutik atheratu eta, borthaz bortha, philtzar-tzar, luma eta burdin erosten zabiltzan Yuduak eta heyen emazteak; sakelako mokanesak harturik, edo arropa kantail batekin, egiten ginituen urde beharriak bezelako batzu, eta yauzteka pharatuko ginen Yudu eta Yudusa heyen aitzinean oihu eginez: «Raka, raka! raka!». Hek koleran laster;

(51) Lortu dugun frantsesezko itzulpena: *Le Juif de Vérone ou les sociétés secrètes en Italie*, 5. edizioa, lekurik eta datarik gabekoa.

(52) Antisemita berri hauen artean sar dezakegu Joseph Augustin Chaho euskaldun teosofoa, karlista-zale, eta aldi berean framazon eta errepublikazalea, nahiz eta haren ezkertartasuna aski bada-ezpadakoa izan (ik. Jon Juaristi, *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Taurus, Madrid 1987, 76-106. orr.).

(53) Ik. Drumont, *op. cit.*, I 1-51. orr.

(54) *Frantziako...* 151-152. orr.

(55) *Frantziako...* 155. orr.

(56) *Ib.* 153. orr. Elissambururen garaian oraindik ustezko hilketa hauek erabiltzen ziren juduei erasotzeko; ik. Drumont *op. cit.*, II 391-423 orr.